

### LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

ERABAKIA, 1998ko maiatzaren 20koa, Lurraldearen Antolamendurako zuzendariarena, «Bilbo-ko Mina del Morro eta Miraflores hiritzeko proiektuaren aldaketa erredaktatzeko lanak (I. poligonoaren esparrua)» esleitzen dituena. 13365

ERABAKIA, 1998ko maiatzaren 21ekoa, Ingurugiroaren Kalitatearen zuzendariarena, «Isurtegiak ustiatu eta zaintzeko eskuliburu teknikoa gauzatzeko lanak» esleitzen dituena. 13366

ERABAKIA, 1998ko maiatzaren 26koa, Etxebizitza eta Arkitektura zuzendariarena, «Beasaingo AU-37 Barne Eraldaketarako Plan Bereziaren B2 Blokean 32 etxebizitzaren oinarritzko proiektua» idazteko lanak esleitzen dituena. 13367

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

#### Zk-3286

19/1998 LEGEA, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

EKAINAREN 29KO 19/1998 LEGEA, EUSKAL  
AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEA  
ANTOLATZEKO

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Gure unibertsitateak zeresan handia izan du Euskal Herriko gizartearen, herri-bizitzaren, zientziaren eta teknologiaren garapenean. Bide eman du milaka pertsonak prestakuntza izan zezaten, gure herritarren ezauguera-maila hobetuz. Horrela hezitako profesionalak, produkzio eta zerbitzuen sisteman sartuz, gizarte aberatsagoa, zuzenagoa eta berdintasun handiagokoa sortarazi dute.

Nolanahi ere, unibertsitatea prozesu konplexu batean murgilduta dago. Prozesu horrek, gure bilakaera historikoaren emaitza besterik ez bada ere, ez dio beti bide berdinari jarraitu.

Ezarri den unibertsitate-eredua gure herria gizarte moderno bihurtzeko alderdi nabarmen eta osagai adierazgarria izan da, eta herritar guztiei irekita egoteaga-

### DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

RESOLUCIÓN de 20 de mayo de 1998, del Director de Ordenación del Territorio, por la que se adjudican los trabajos de «Redacción de la Modificación del Proyecto de Urbanización de la Mina del Morro y Miraflores en Bilbao, Ámbito del polígono I». 13365

RESOLUCIÓN de 21 de mayo de 1998, del Director de Calidad Ambiental, por la que se adjudican los trabajos de «Elaboración de manual técnico de explotación y control de vertederos». 13366

RESOLUCIÓN de 26 de mayo de 1998, del Director de Vivienda y Arquitectura, por la que se adjudican los trabajos de «Redacción del Proyecto Básico de 32 vvdas. en el Bloque B2 del PERI AU-37 de Beasain». 13367

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### Nº-3286

LEY 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euzkadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 19/1998, DE 29 DE JUNIO, DE ORDENACIÓN  
UNIVERSITARIA DE LA COMUNIDAD  
AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Universidad de nuestro país ha tenido un destacado papel en su desarrollo social, cívico, científico y tecnológico. Ha facilitado el acceso a la formación de miles de personas, incrementando el grado de conocimiento de nuestra ciudadanía, ha educado profesionales que incorporándose al sistema productivo y de servicios han permitido la gestación de una sociedad más próspera, justa e igualitaria.

Sin embargo, la Universidad está sumida en un proceso complejo, que no es sino el resultado de nuestro propio proceso histórico, pero éste no sigue una línea continua.

El modelo de Universidad de masas que se ha implantado y que no entra ni tiene que entrar en contradicción con la calidad y la excelencia ha sido sin duda

tik ere ez doa, eta ez du zertan joan, kalitatearen eta bikaintasunaren aurka.

Aurkezten dugun lege honek ezin du ahantzi XXI. mendearen atarira heldu arte ez diogula ekin unibertsitate-sistemaren emaitzak ebaluatzeari. Gure inguruko gizarteetan, aldiz, sistema berraztertzen ari diren arren, unibertsitate-tradizio luzea daukate. Euskal gizartearen bere geroari buruz ari da pentsatzen, eta pentsamendu horren barruan ezinbestekoa da unibertsitateari buruzko gogoetak egitea eta unibertsitate-bikaintasuna arrazoizkotzeko moduak zehaztea ezaguera-gizarteak agertzen dituen erronken aurrean.

Botere publikoaren, unibertsitatearen eta euskal gizartearen arteko kontratu sozialaren oinarriak jartzea da legearen helburua. Kontratu horrek, bestetik, ateak ireki behar dizkie berrikuntzei, kalitateari eta ezaguera-bilaketari.

Autonomia Estatutuari esker Euskal Herriak eskumen zabalak hartu zituen irakaskuntzaren arloan –maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan– Estatuak beretzat gorde zituen eskumenei eta legegileek unibertsitateari eman zioten autonomiari kalterik egin gabe.

Bestaldetik, euskal unibertsitate-sistemak hiru unibertsitate hartzen ditu bere baitan: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Aniztasun horrek, gure gizartearen ezaugarria denak, konplexutasuna eta aberastasuna ematen dio euskal unibertsitate-sareari. Legegileen ahalmenak ere ezberdinak dira kasu batzuetan eta besteetan, dagozkien eskumenak ere ezberdinak baitira.

Autonomia Erkidegoak unibertsitatearen onerako legeak egiteko daukan ahalmena mugatua da. Unibertsitate barruko araudia Unibertsitatearen Erreformatarako Legearen oinarritzko legediaren menpe geratu da. Oinarritzko eta garrantzizko hainbat gai Autonomia Erkidegoaren ahalmen arau-emaitetik kanpo daude: besteak beste, irakasle-funtzioaren estatutua; irakaslego-sistema, eta titulu ofizialak lortzea helburu duten ikasketaren planak egin eta onartzea.

Horiek guztiak dira legearen aldetik ditugun mugak. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoak baditu nahiko eskumen guztion onerako esparrua tautzeko.

Legearen helburuak honako hauek dira: unibertsitate-sistemaren koordinazioa, unibertsitate-ikasketen eskaintzaren programazio eta plangintza estrategikoa, euskararen erabilera sustatzea irakaskuntzan, ikerkuntzan, administrazioan eta zerbitzuetan, ikerketa-politika, eta eraginkortasun, nahikotasun eta segurtasun fi-

un factor notable, un componente significativo de la configuración de nuestro país como una sociedad moderna.

La ley que presentamos no puede olvidar que estamos evaluando los frutos del sistema universitario en los umbrales del siglo XXI, cuando otras sociedades de nuestro entorno lo están haciendo también pero tienen detrás siglos de tradición universitaria. La sociedad vasca está pensando su futuro, y dentro de este pensamiento no puede faltar la reflexión sobre la Universidad y sobre cómo racionalizar la excelencia universitaria ante los desafíos que plantea la sociedad del conocimiento.

La pretensión de la ley es sentar las bases para un contrato social entre el poder público, la Universidad y la sociedad vasca, abierto a la innovación, a la calidad y a la búsqueda del conocimiento.

El Estatuto de Autonomía hizo posible que el País Vasco se dotara de competencias sobre la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio de las competencias que el Estado acogió para sí, ni de la autonomía de la que el legislador dotó a la Universidad.

Por otra parte, en el sistema universitario vasco conviven la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, la Universidad de Deusto y la Mondragon Unibertsitatea. Este hecho, tan característico de nuestra sociedad, añade complejidad y riqueza al entramado universitario vasco. Las facultades del legislador en unos casos y otros son harto distintas, al ser sus competencias sobre una y otras diferentes.

El margen de que dispone la Comunidad Autónoma para el diseño de una legalidad propia al servicio de la Universidad es limitado. La regulación del ámbito interior de la Universidad ha quedado delimitada por la legislación básica de la ley de Reforma Universitaria. Cuestiones tan básicas y nucleares como el estatuto de la función docente universitaria, el sistema de profesorado, o la elaboración y aprobación de los planes de estudio conducentes a la obtención de títulos oficiales, entre otras, quedan fuera del alcance regulador de la Comunidad Autónoma.

Ello enmarca nuestras limitaciones legales. Pero las competencias de que dispone la Comunidad Autónoma vasca permiten diseñar un campo de interés común.

Los objetivos que la ley persigue son: la coordinación del sistema universitario, la programación y la planificación estratégica de la oferta de estudios universitarios, el fomento de utilización del euskera en la docencia, en la investigación y en la administración y servicios, la política de investigación, y la creación de un

nantzarioaren printzipioetan eta ekintzen kalitatean eta etengabeko ebaluazioan oinarritutako sistema sortzea unibertsitatea finantzatzeko.

Atariko tituluan xedapen orokorrak jaso dira. Xedapen horietan, Autonomiaren jabetzapeko zerbitzu publikotzat jotzen da unibertsitatea. Horrela, Euskal Herrian prestazioak bermatzeko azken erantzukizuna Autonomia Erkidegoari dagokio. Zerbitzu publikoa horrela ulertuta, legeak unibertsitatearen eginkizunak eta herritar guztien eskubideak zehazten ditu; izan ere, herritarrek hezkuntza jasotzeko eskubidea daukate, eta, horretarako, aukera-berdintasuna bermatuko da, bai eta oinarritzko eskubideak gauzatzeko dirulaguntzen programa ere. Bestaldetik ere, legeak gogoan dauka legediak unibertsitate-erakundearen autonomia zedarrizten eta sustatzen duela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeke Legeak Euskadiko Unibertsitate-Kontseilua sortu du. Kontseilu hori, autonomia-lurraldean kokatutako unibertsitate publiko eta pribatuen lankidetzara, aholkularitza eta partaidetzarako organoa da. Unibertsitatearen jardura bermatzea Autonomia Erkidegoari dagokio, eta unibertsitateari, zerbitzu publikoa den aldetik, euskal gizartearen interes orokorrei erantzutea. Horiek horrela, beharrezkoa da organo koordinatzaileak egotea, unibertsitateen informazio-trukea errazteko, betiere unibertsitate bakoitzaren eskumenei kalterik egin gabe, hartara lege honen helburu den sistema hobeto planifikatu ahal izateko.

Legeak, Autonomia-Estatutuak eta Euskararen Erabilpena Arauzkoteke Oinarritzko Legeak abiarazitako bideari jarraiki, unibertsitate publikoak hezkuntza-eskaintza elebiduna emateko oinarriak jarri nahi ditu.

Euskalduntzeko berariazko programak sortzea hautatzen du legeak arlo honetako unibertsitate-planei bultzatzen laguntzeko, garrantzizko irizpide batzuen menpe jarritz. Horri dagokionez, gure helburua hau da: guztion legezko eskubideak bermatzen dituen hezkuntza elebiduna eskainiko duen unibertsitateari eustea, betiere unibertsitate berean hizkuntza-ereduen araberako bi azpiunibertsitate sortu gabe. Hizkuntza-aniztasunaren helburua irakaskuntzaren kalitatea eta ikasleen prestakuntza bermatzea besterik ez da.

Lehenengo titulua unibertsitate publikoari buruzkoa da. Unibertsitate-antolamenduaren helburua betetzeari begira, legeak Unibertsitate-Planaren figura sortu du. Plan hori unibertsitateko irakaskuntza publikoa antolatzeke berariazko tresna da. Plan horretan hainbat programa zehaztuko dira lortu beharreko helburuak, indaraldia eta unibertsitateko ekintza-arlo batzuk kontuan hartuz. Planak, antolatzeke tresna denez, irizpide ob-

sistema de financiación de la Universidad basado en los principios de eficiencia, suficiencia y seguridad financiera, así como en la calidad y en la continuada evaluación de sus acciones.

El Título Preliminar contiene las disposiciones generales. En ellas se parte del entendimiento de la Universidad como servicio público de titularidad autonómica. De esta forma, la Comunidad Autónoma asume la responsabilidad última de asegurar sus prestaciones en el ámbito autonómico vasco. Producto de esta concepción del servicio público es cómo delimita la ley las funciones de la Universidad, al igual que lo hace con el derecho de todos los ciudadanos y ciudadanas a recibir educación, garantizando la igualdad de oportunidades, así como el programa de ayudas económicas que haga efectivos estos derechos fundamentales. La ley no olvida tampoco que la legislación acota y promueve la autonomía de la institución universitaria.

La ley de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco crea el Consejo Vasco de Universidades. Es éste el órgano de cooperación, consulta y participación de las Universidades -públicas y privadas- enclavadas en el territorio autonómico. Si la Comunidad Autónoma es la responsable de asegurar el funcionamiento de la institución universitaria y si la Universidad es un servicio público cuya prestación afecta a los intereses generales de la sociedad vasca, ello exige la existencia de instancias coordinadoras que, sin entrar en las competencias de cada cual, faciliten el intercambio de información entre unas y otras Universidades con vistas a planificar mejor el sistema objeto de esta ley.

La ley, siguiendo el camino marcado por el Estatuto de Autonomía y la ley básica para la Normalización del Uso del Euskera, pretende sentar las bases para que la Universidad pública configure una oferta educativa bilingüe.

La ley elige la creación de programas específicos de euskaldunización para contribuir al impulso de los planes universitarios en esta materia, sometiéndolo a un conjunto de criterios relevantes. Perseguimos, en este sentido, la permanencia de una Universidad donde la oferta educativa bilingüe no quiebre los legítimos derechos de unos y de otros, pero donde el resultado final no sea la existencia de dos universidades dentro de una, especializada cada una de ellas en un solo modelo lingüístico. El objetivo es que la diversificación lingüística garantice, en todos los casos, la calidad de la docencia y la formación de los y las estudiantes.

El Título Primero está referido a la Universidad pública. Para cumplir con el objetivo declarado de la ordenación universitaria, la ley crea la figura del Plan Universitario. Éste es el instrumento específico para la ordenación de la enseñanza pública universitaria. El plan consiste en la definición de un número de programas establecidos en función de los objetivos a alcanzar en su periodo de vigencia y en una serie de áreas de acti-

jektiboak proposatzen ditu, bai titulazio eta ikastetxeen dagokienez, bai lurralde historikoen dagokienez ere.

Legea bere eskumen-esparruaren barruan mugitzen da bete-betean, unibertsitatearen autonomia errespetatuz. Gobernuari dagokio legezko testu honetan aurreikusitako programa-kontratuen bidez finantzatu ahal izango diren jarduketak zehaztea, Gobernu-Kontseiluan onartutako plana indarrean jartzea unibertsitatearen esku utziz.

Legeak kalitatea eskatzen du unibertsitateko ekin-tza eta arlo guztietan. Hori dela eta, banan-banako ordainsari osagarriak sortzeko asmoa dauka, irakaslan, ikerketa-lana edo garrantzizko bestelako merezimen-duk saritzeko.

Gobernuaren eta unibertsitate publikoaren arteko elkarlanaren bila, legeak Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua sortu du, Gobernuaren eta unibertsitatearen partaidetzaz. Kontseilu horren helburua da unibertsitatearen arloko ekintza guztien koordinazioa eta zerikusia duten guztien arteko akordioa batzuegana eta besteuegana helaraztea, bai eta erakunde horren aholkularitza eta partaidetza bermatzea ere unibertsitate-sistema publikoaren xedeak eta helburuak zehazteko garaian.

Legean badago kapitulu bat ikasleen betebeharrak eta eskubideak jasotzen dituen. Eskubideak azpimarratzen dira bereziki, batez ere hezkuntza jasotzeko eskubidea eta ikasteko askatasuna, betiere honako hauek bermatzen direla: kontzientzia- eta adierazpen-askatasuna, ebaluazio objektiboa izateko eta ebaluazioaren aurka jotzeko eskubidea -ikaslea zuzena edo egokia ez delakoan badago - eta ikasgai bakoitzaren edukiak, helburuak, metodologia, programa, bibliografia zein diren jakiteko eskubidea. Legearen nahia da ikasteko askatasunak bere baitan jasotzea irakasleak hautatzeko eskubidea. Unibertsitateari dagokio, bere egoera eta posibilitateen arabera, aukera hori ebaluatzea titulazio bakoitzaren ezaugarrien eta eskueran dituen baliabideekin bat etorritik.

Legeak arreta berezia eskaintzen dio ikerketa-arloari. Izan ere, ikerketak gero eta garrantzi handiagoa hartu du irakasleen lanean, departamentuetan eta institutuetan. Legeak ikerketaren alde egiten du unibertsitateko berariazko egitekotzat hartuz. Oinarritzko ikerketak eta ikerketa aplikatuak elkar osatzen dute zenbait ezaguera-esparru eta espezialitate zientifiko eta akademikoren mugak argi bereizita ez dauden neurrian.

Aldi berean, baina, legeak enpresekin eta teknologia-zentroekin hitzartutako ikerketa bultzatu nahi du. Halaber, oztopoak gainditzeko bideak jartzen ditu, finantza-laguntzarako programak aurreikusten eta hitzartutako ikerketa sustatzeko aukerak zabaltzen. Helbu-

bidia unibertsitaria. Si el plan es un instrumento para la ordenación, ésta propone criterios objetivos, en lo que se refiere tanto a las titulaciones y a los centros como a los territorios históricos.

La ley se mueve estrictamente en el ámbito de sus competencias, respetando la autonomía universitaria. Es labor del Gobierno indicar las actuaciones que podrán financiarse mediante los contratos-programa previstos en este texto legal, reservando a la Universidad la puesta en práctica del plan aprobado en el Consejo de Gobierno.

La ley, al exigir calidad en todas las actividades y ámbitos universitarios, prevé la creación de complementos retributivos individualizados con objeto de premiar la labor docente e investigadora u otros méritos relevantes que se juzguen como tales.

Buscando la coordinación entre las acciones del Gobierno y la Universidad pública, la ley crea el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria, con la participación del Gobierno y la Universidad. Se quiere, con la creación de este consejo, que la coordinación de todas las acciones en materia universitaria y el acuerdo entre todos los agentes implicados alcance a unos y otros, así como garantizar el asesoramiento y la participación de esta institución en la determinación de las finalidades y objetivos del sistema universitario público.

La ley dedica también un capítulo a los deberes y los derechos de los y las estudiantes. Se pone especial énfasis en el régimen de derechos, sobre todo en todos aquellos que hacen referencia al derecho a la enseñanza, y a la libertad de estudio en particular, garantizando en todos los casos su libertad de conciencia y expresión; el derecho a una evaluación objetiva y a recurrirla si la estima injusta o poco apropiada, y el derecho a conocer los contenidos, objetivos, metodología, programa y bibliografía de cada materia, etc. La ley expresa la voluntad de que la libertad de estudio pueda alcanzar también al derecho a elegir profesor. Será la Universidad, dependiendo de su situación y de sus posibilidades, quien evalúe esta posibilidad en función de las características de cada titulación y de los medios disponibles.

La ley presta una atención destacada a la investigación. Ésta ha ido ocupando un lugar cada vez más destacado en el trabajo de profesores y profesoras, departamentos e institutos. La ley apuesta por favorecerla como tarea específicamente universitaria. La investigación básica y la aplicada se complementan en la medida en que los perfiles de determinadas áreas de conocimiento y especialidades científicas y académicas no hacen posible una nítida distinción.

Pero, al tiempo, la ley pretende favorecer la investigación concertada con las empresas y los centros tecnológicos. Asimismo, crea mecanismos para eliminar trabas, prevé programas de ayuda financiera y abre la posibilidad de que se incentive la investigación concertada.

ru beraren bila, esparru malgua zehaztu da unibertsitate publikoak aukera izan dezan aholkularitza-, laguntza- eta zerbitzu-kontratuetan parte hartzeko, bai erakunde pribatuentzat bai administrazio publikoentzat.

Adierazitako helburuak betetzeko, beharrezkoa da euskal gizarteak unibertsitate publikoari agintzen dion zerbitzua bermatzeko finantzazio-sistema publiko bat sortzea.

Legeak proposatzen duen finantzazio-eredua hiru kontzeptutan banatzen da argi eta garbi: dirulaguntza arrunta, hau da, dirulaguntza orokorra; programa-kontratu bidezko finantzazioa, eta inbertsiorako eta azpiegituretarako urte anitzeko programa berdintzeko kontu-atala. Dirulaguntza arrunta aurretik finkatutako parametro batzuen arabera kalkulatu da. Programa-kontratuak, aitzitik, Unibertsitate-Planean aurreikusitako programak eta ekintzak finantzatzen dituzte aurretik finkatutako helburuen arabera. Azkenik, azpiegituretarako programak unibertsitateko azpiegitura materialen beharrei erantzun nahi die, programa horren indarraldian burutu beharreko ekintzak azpimarratuz.

Bigarren tituluan unibertsitate pribatuen aitorten-prozesua arautzen da, ikastetxeak sortzeko askatasunaren oinarriko eskubidetik datorren prozesua alegia, eta eskubide hori arautzeko irizpideak eta baldintzak ezartzen ditu legean aurreikusitako baliabideak erabiliz.

Unibertsitate pribatuen aitorpenerako, hasieran eman beharreko titulazioei dagokienez, unibertsitate publikoak sortzeko eskatzen diren baldintza berdinak bete behar dira. Legean ezarritako irizpidearen arabera, unibertsitate horiek gutxienezko titulazio-kopurua mantendu beharko dute. Horrek ez du esan nahi hasierakoak beste batzuekin ordezkatea ez dagoenik, baina bai ezingo direla ezabatu matrikula egin dutenek ikasketak akademikoak amaitu arte. Legeak, bestetik, honako hauek ere zehazten ditu, entitate titularrari eusten dioten interesak gardenak izan daitezen: nortasun juridikoa —sustatzaileenaz bestelakoa—, gutxienezko baltzu-kapitala, eta kapital hori uztea edo eskualdatzea nahiz zerga-egintzak kontrolatzeko bideak zehazten ditu.

Legeak gure unibertsitate-sistemaren kalitatea egiaztatzeko eta birsortzeko bidea izan nahi du. Izan ere, kalitatea ziurtatzeko modurik onena unibertsitateak burutzen dituen ekintza guztien kanpoko ebaluazioan datza.

da. Buscando la misma finalidad se describe un marco flexible para que la Universidad pública pueda concurrir a contratos de consultoría, asesoramiento y servicios, tanto para instancias privadas como para Administraciones públicas.

Para cumplir con los objetivos declarados es necesario crear un sistema de financiación público que garantice la cobertura del servicio que la sociedad vasca encomienda a la Universidad pública.

El modelo de financiación que propone la ley está desglosado en tres conceptos suficientemente identificados: la subvención ordinaria, entendida como subvención global; la financiación mediante contratos-programa, y la partida destinada a cubrir el programa plurianual de inversión e infraestructuras. La subvención ordinaria se calcula según un conjunto de parámetros previamente fijados. Los contratos-programa, por el contrario, financian, según los objetivos prefijados, los programas y las acciones previstas en el Plan Universitario. Por último, el programa de infraestructuras pretende cubrir las necesidades de la infraestructura material universitaria insistiendo en la relación de actuaciones a llevar a cabo en el periodo de vigencia de este programa.

El Título Segundo regula el proceso de reconocimiento de Universidades privadas, dimanante del derecho fundamental de libertad de creación de centros docentes, y establece, con los medios previstos en la ley, las condiciones y los criterios de regulación de este derecho.

El reconocimiento de Universidades privadas se somete, en cuanto a las titulaciones que inicialmente vayan a impartir, a iguales condiciones que las exigidas para la creación de Universidades públicas. Establece también la ley el criterio de que estas Universidades hayan de mantener a lo largo de toda su existencia el contenido mínimo en titulaciones, sin perjuicio de que las iniciales puedan ser suprimidas con posterioridad y sustituidas por otras, aun cuando su supresión sólo será posible a la finalización de los estudios académicos de quienes ya estuvieran matriculados. Determina también la ley su personalidad jurídica, distinta de la de sus promotores, su capital social mínimo y los mecanismos de control de las cesiones o transmisiones del capital social o actos de gravamen, a fin de propiciar la transparencia de los intereses que sostienen a la entidad titular.

La ley aspira a transformarse en un mecanismo para contrastar y reproducir la calidad de nuestro sistema universitario. La calidad encuentra su mejor legitimación en la evaluación externa de todas aquellas actividades que la Universidad lleva a cabo.

ATARIKO TITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.**– Zerbitzu publikoa.

Unibertsitateari dagokio irakaskuntza, ikasketa eta ikerketaren bitartez unibertsitate-hezkuntzaren zerbitzu publikoa garatzea.

**2. artikulua.**– Unibertsitatearen egitekoak.

Gizartearen zerbitzura diharduen unibertsitatearen egitekoak honako hauek dira:

a) Zientzia, teknika eta kultura sortu, garatu, zabaltu eta kritikatu.

b) Prestakuntza zientifikoa eta teknikoa eman, eta unibertsitateko ikasleek gaitasun profesionala lor dezaten bideak jarri.

c) Oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua sustatu.

d) Profesionalak eta espezializaziorako eta ezaguerak eguneratzeko goi-mailako prestakuntza eskatzen duten beste gizataldeak etengabe prestatu.

e) Gizartean ezaguera zabaltu, bereziki euskal kulturarena eta euskararena.

f) Hezkuntza-sistemaren maila ezberdinen arteko koordinazioan parte hartu, batez ere bigarren hezkuntzan eta goi-mailako lanbide-prestakuntzan.

g) Unibertsitate-sistema produkzio- eta enpresa-munduarekin lotu.

h) Desberdintasun sozialak eta kulturalak murrizteko eta emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko laguntza eman, borondatea eta gaitasuna duten pertsona guztiei unibertsitate-prestakuntzan sartzeari berrmatuz.

i) Nazioarteko trukaketa eta lankidetzarako laguntza eman.

**3. artikulua.**– Unibertsitate-irakaskuntzarako eta aukera-berdintasunerako eskubidea.

1.– Legez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek unibertsitatean ikasteko eskubidea daukate berdintasunez, unibertsitateek –bere eskumen-esparruaren barruan– goi-mailako irakaskuntzaren programazio orokorragatik, prestakuntzaren eskaera sozialagatik eta unibertsitate eta ikastetxeen instalazio- eta irakasle-baliabideengatik zehazten dituzten irizpideen arabera.

2.– Gobernuak, bai eta unibertsitateak ere, arrazoi ekonomikoak edo beste jatorrizko desberdintasunak direla-eta inor bazterturik gera ez dadin, benetako aukera-berdintasun politikak bultzatuko ditu, ikasleei bekak, laguntzak eta kredituak eskainiz, eta campusetan behar hainbateko laguntza-politika bat aurrera eramanaz, oztopo ekonomikoak eta geografikoak murriztearren.

TÍTULO PRELIMINAR  
DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.**– Servicio público.

Corresponde a la Universidad el desarrollo del servicio público de la educación universitaria mediante la docencia, el estudio y la investigación.

**Artículo 2.**– Funciones de la Universidad.

Son funciones de la Universidad al servicio de la sociedad:

a) La creación, desarrollo, transmisión y crítica de la ciencia, la técnica y la cultura.

b) La formación científica y técnica, y la capacitación profesional de las y los estudiantes universitarios.

c) El fomento de la investigación básica y aplicada.

d) La formación continua de profesionales y otros colectivos sociales que demanden formación superior, dirigida a la especialización y la actualización de conocimientos.

e) La difusión social del conocimiento, en particular de la cultura y la lengua vascas.

f) Participar de la coordinación entre los distintos niveles del sistema educativo, en particular con la educación secundaria y la formación profesional de grado superior.

g) La conexión del sistema universitario con el mundo productivo y empresarial.

h) Contribuir a la reducción de las desigualdades sociales y culturales y a la consecución de la igualdad entre mujeres y hombres facilitando a todas las personas con voluntad y capacidad el acceso a la formación universitaria.

i) Contribuir al intercambio y a la cooperación internacional.

**Artículo 3.**– Derecho a la enseñanza universitaria y a la igualdad de oportunidades.

1.– Todas las personas que cumplan los requisitos legalmente establecidos tienen derecho al estudio en la Universidad en condiciones de igualdad, de conformidad con los criterios que, en el marco de sus competencias, establezcan las Universidades en razón de la programación general de la enseñanza superior, la demanda social de formación y la capacidad de las Universidades y los centros en instalaciones y en profesorado.

2.– El Gobierno, así como la Universidad, a fin de que nadie quede excluido por razones económicas o por otro tipo de desigualdades de origen, impulsará políticas de igualdad de oportunidades reales a través de la oferta de becas, ayudas y créditos a los y las estudiantes, y mediante el desarrollo de una política asistencial en los campus suficiente, destinada a amortiguar las barreras económicas y geográficas.

**4. artikulua.**– Unibertsitatearen autonomia eta erregimen juridikoa.

1.– Botere publikoen unibertsitate arloko esku-haritzeak eta, orokorrean, lege honetako xedapenek eta garatuko duten gainerako arauak errespetatu egingo dute legeek bermatutako unibertsitate-autonomia.

2.– Unibertsitatearen autonomia askatasun akademiakoaren printzipioan oinarritzen da. Printzipio hori ikasketa-, ikerketa- eta katedra-askatasunean adierazten da.

3.– Unibertsitatearen autonomiak irakasle, ikertzaile eta ikasleei beren erantzukizunak betetzeko eskatzen die, gizarteak hezkuntza, kultura, zientzia eta lanbidearen arloan dituen beharrei erantzuteari begira.

4.– Unibertsitatearen autonomia legeen eta horiek garatzen dituzten arauen esparruaren barruan gauzatzen da, eta unibertsitatearen estatutuen esparruan.

5.– Unibertsitateari dagokio, bere eskumen-esparruaren barruan, legeetan eta garapen-erregelamenduetan araututa ez dauden eta beste organo edo erakundeen ardurapean ez dauden gaiak erregulatzea eta garapen-arauak ematea.

6.– Unibertsitatearen estatutuak onartzea Gobernuari dagokio. Gobernuak ezin izango du aldaketarik sartzeko eskatu edo onarpenari uko egin, behar bezala arrazoiutako legezketasun-irizpideengatik ez bada.

7.– Unibertsitateko gobernu-organoei ematen dituzten aplikazio orokorreko xedapenak, baita ikasleen eskubideen eta betebeharren garapena arautzen duten arauak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira eta ez dira indarrean jarriko beren testu osoak argitaratu arte.

**5. artikulua.**– Hizkuntzen ofizialkidetasuna eta normalizazioa.

1.– Unibertsitate publikoak behar diren neurriak hartuko ditu unibertsitate-irakaskuntzan, zientzia-ikerketan eta administrazio- eta zerbitzu-jardueran euskararen erabilera berdintasun eta kalitatezko baldintzetan normalizatzeko, betiere Unibertsitatearen hizkuntza-arrazoiengatik soilik zatiketarik ez sortzeko irizpidea errespetatuz.

2.– Unibertsitate publikoak euskalduntze-programak egingo ditu Unibertsitate-Planean jasoko diren titulazioetarako. Programa horiek programa-kontratuen kontura finantzatu dira.

3.– Euskalduntze-programek honako irizpide hauekin bat etorri beharko dute:

a) Euskarazko unibertsitate-ikasketen eskaintza ikasleen eskaerari egokitu behar zaio.

b) Gutxienezko ikasle-kopuru bat finkatu behar da euskarazko ikasketak ematen hasteko edo aurretik daudenei eusteko. Era berean, euskaldundu beharreko ti-

**Artículo 4.**– Autonomía de la Universidad y régimen jurídico.

1.– La intervención de los poderes públicos en materia universitaria y, en general, las disposiciones de la presente ley y demás normas que la desarrollen, se entenderán sin perjuicio del debido respeto a la autonomía universitaria garantizada por las leyes.

2.– La autonomía de la Universidad se fundamenta en el principio de libertad académica, que se manifiesta en las libertades de estudio, investigación y cátedra.

3.– La autonomía universitaria exige y hace posible que docentes, investigadores y estudiantes cumplan con sus respectivas responsabilidades, en orden a la satisfacción de las necesidades educativas, culturales, científicas y profesionales de la sociedad.

4.– La autonomía de la Universidad se ejerce en el marco de las leyes y de las normas que las desarrollan, así como de sus Estatutos.

5.– Corresponde a la Universidad, en el ámbito de las funciones que tiene asignadas, la regulación y desarrollo normativo de las materias que no se encuentren reguladas en las leyes y sus reglamentos de desarrollo, ni atribuidas a otros órganos o instituciones.

6.– La aprobación de los Estatutos de la Universidad corresponde al Gobierno, que sólo podrá requerir modificaciones o negar su aprobación por criterios de estricta legalidad debidamente motivados.

7.– Las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la Universidad, así como las normas que regulen el desarrollo de los derechos y los deberes de los y las estudiantes, serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco y no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

**Artículo 5.**– Cooficialidad y normalización lingüísticas.

1.– La Universidad pública adoptará las medidas oportunas para la normalización del uso del euskera en la enseñanza universitaria, en la investigación científica y en la actividad administrativa y de servicios, en condiciones de igualdad y calidad, respetando siempre el criterio de no dividir la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea por motivos exclusivamente lingüísticos.

2.– La Universidad pública elaborará programas de euskaldunización para las distintas titulaciones que se incluirán en el Plan Universitario y se financiarán con cargo a contratos-programa.

3.– Los programas de euskaldunización deberán establecerse de conformidad con los siguientes criterios:

a) La adecuación entre la oferta de estudios universitarios en euskera y la demanda del alumnado.

b) La determinación de un número necesario de estudiantes para abrir o mantener líneas de enseñanza en euskera, así como las titulaciones y las materias a eus-

tulazio eta jakintzagaiak zehaztuko dira, bai eta horien derrigorrezko edo aukerako ardaztasuna ere.

c) Ondo prestatutako irakasleak egoteko bideak jarri eta alde horretatik izan daitezkeen beharrak aurreikusi beharko dira.

4.- Unibertsitate publikoaren administrazio eta zerbitzuetako langileei Euskeraren Erabilpena Arauzko-tzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean administrazio publikoen zerbitzuetako langileentzat zehaztutakoa ezarriko zaie.

**6. artikulua.**– Euskadiko Unibertsitate-Kontseilua.

1.- Euskadiko Unibertsitate-Kontseilua unibertsitate publiko eta pribatuen lankidetzara, aholkularitza eta partaidetzarako organo gisa sortzen da, eta egiteko hauek izango ditu:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari aholku ematea unibertsitate-sistemarentzat interes orokorrekoak diren gai guztietan, sailburu horrek hala eskatzen dionean.

b) Unibertsitateko ezaguera- eta prestakuntza-beharrak berri izan eta horiei buruzko txostena egitea, bai eta alderdi horiei dagokienez gizartearen eskaerari no-raino erantzuten zaion jakin eta horretaz txostena egitea ere.

c) Unibertsitate bakoitzean ezarritako titulazio eta ikasketa-planen egoera eta bilakaeraren jakitun izan eta horiei buruzko txostena egitea.

d) Ikasketa eta ikerketarako beka eta dirulaguntzen arloko oinarrizko jarraibideen jakitun izan eta horiei buruzko txostena egitea.

e) Unibertsitate eta enpresen arteko harremanei eta Gobernuak horretarako proposatzen dituen neurriei buruzko txostena egitea.

f) Orokorrean, unibertsitateen arteko elkarlanari eta unibertsitate-sistemaren kalitate eta nahikotasunari dagokienez interesgarritzat jotzen diren gaiak ezagutu, proposatu eta horiei buruzko txostena egitea.

2.- Euskadiko Unibertsitate-Kontseiluak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua izango du buru. Gainontzeko kideak honako hauek izango dira:

a) Lau kide, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak izendatuta.

b) Unibertsitateen errektoreak.

c) Unibertsitateetako gizarte-kontseiluen presidentek edo maila bereko kargudunak.

d) Bi kide, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen errektoreak izendatuta.

3.- Euskadiko Unibertsitate-Kontseilua argibideak emateko eta eztabaidatzeko organoa da. Kontseiluak, egoki irizten dien lan-batzordeak eratu ahal izango ditu jarduerara ahalik eta onena izan dadin.

kaldunizar, y su carácter troncal, obligatorio u optativo.

c) La existencia de personal docente cualificado y su previsión.

4.- Al personal de administración y servicios de la Universidad pública le será de aplicación lo previsto para los trabajadores al servicio de las Administraciones públicas en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

**Artículo 6.**– Consejo Vasco de Universidades.

1.- Se crea el Consejo Vasco de Universidades como órgano de cooperación, consulta y participación de las Universidades, públicas y privadas, con las siguientes funciones:

a) Asesorar al Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación en todos aquellos asuntos de interés común para el sistema universitario que éste o ésta le encomiende.

b) Conocer e informar sobre las necesidades de conocimiento y formación universitaria y el grado de satisfacción de la demanda social en dichos aspectos.

c) Conocer e informar sobre la situación y evolución de las titulaciones y los planes de estudios implantados en cada Universidad.

d) Informar sobre las directrices básicas en materia de becas y ayudas de estudio y a la investigación.

e) Informar sobre las relaciones Universidad-empresa y sobre las medidas que a tal fin proponga el Gobierno.

f) En general, conocer, informar y proponer cuantos asuntos se estimen de interés en relación con la cooperación entre Universidades y la calidad y suficiencia del sistema universitario.

2.- El Consejo Vasco de Universidades estará presidido por el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación, y formarán parte del mismo:

a) Cuatro vocales por designación del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

b) Los Rectores o Rectoras de las Universidades.

c) Los Presidentes o Presidentas de los Consejos Sociales de las Universidades o cargos equivalentes.

d) Dos vocales por nombramiento del Rector o Rectora de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

3.- El Consejo Vasco de Universidades tendrá carácter informativo y deliberante. El consejo podrá crear las comisiones de trabajo que estime precisas para su mejor funcionamiento.



4.- Kontseilua, gutxienez, sei hilabetean behin elkartuko da, edo gutxienez bost kidek eskatzen dutenean.

LEHENENGO TITULUA  
UNIBERTSITATE PUBLIKOA

LEHENENGO KAPITULUA  
UNIBERTSITATEAREN ANTOLAMENDUA

LEHENENGO SEKZIOA  
UNIBERTSITATE-PLANA

**7. artikulua.**- Antolamenduaren helburua.

Unibertsitate-irakaskuntzaren antolamenduaren helburuak honako hauek dira:

a) Unibertsitate-irakaskuntza publikoaren zerbitzua-  
ren kalitatea eta Euskal Herriko eta bertan bizi diren  
pertsonek interes ekonomiko, sozial eta kulturekiko  
egokitzapena bermatu.

b) Unibertsitate-programazioa eta hezkuntza-siste-  
maren antolamendu orokorra bateratu.

c) Gizarteak eskatzen eta ikasleek adierazten duten  
ikasketa-eskaerari eta lan-merkatuaren beharrei erant-  
zun.

d) Unibertsitate-irakaskuntza lurralde historikoetan  
orekaz garatu.

**8. artikulua.**- Unibertsitate-Plana.

1.- Unibertsitate-Plana unibertsitate-irakaskuntza  
publikoa antolatzeko Gobernuak onartutako berariaz-  
ko tresna da.

2.- Unibertsitate-Planaren indarraldia lau urtekoa  
izango da eta unibertsitate-irakaskuntzaren egoera  
ebaluatuko du, bere beharrak zehaztuko, eta indarral-  
dirako helburuak eta lehentasunak ezarriko, bai eta fi-  
nantzazio-beharrak eta aurreikusitako dirusarrerak ere.

3.- Planaren jarduera-programak hura indarrean den  
bitartean lortu beharreko helburuen arabera zehaztuko  
dira. Plan honek ohiko finantzazioez gaindikoa jardue-  
ra guztiak subentzionatuko ditu.

4.- Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordina-  
tzeko Kontseiluak, ikasturte bakoitza amaitzerakoan,  
txosten bat egingo du planean aurreikusitako helburuak  
noraino bete diren eta aldaketak sartzea beharrezko edo  
egoki den ebaluatuz.

**9. artikulua.**- Unibertsitate-Planaren programak.

Unibertsitate-Planak, gutxienez, programa hauek  
ezarriko ditu:

1.- Unibertsitateko ziklo guztietan irakaskuntzaren  
kalitatea hobetzeko programak.

2.- Titulazio eta espezialitate berriak ezartzeko be-  
rriazko programak, haiek guztiz garatu arte, bai eta,

4.- El consejo se reunirá, al menos, una vez cada seis  
meses, o cuando así lo requieran al menos cinco de sus  
miembros.

TÍTULO PRIMERO  
DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA

CAPÍTULO PRIMERO  
ORDENACIÓN UNIVERSITARIA

SECCIÓN PRIMERA  
EL PLAN UNIVERSITARIO

**Artículo 7.**- Objeto de la ordenación.

La ordenación de la enseñanza universitaria tiene por  
objeto:

a) Garantizar la calidad del servicio de la enseñanza  
universitaria pública y su adecuación a los intereses eco-  
nómicos, sociales y culturales del País Vasco y de las  
personas que habitan en él.

b) Integrar la programación universitaria y la orde-  
nación general del sistema educativo.

c) Atender la demanda social de estudios expresada  
por los y las estudiantes y las necesidades del mercado  
de trabajo.

d) Desarrollar equilibradamente la enseñanza univer-  
sitaria en los territorios históricos.

**Artículo 8.**- El Plan Universitario.

1.- El Plan Universitario es el instrumento especí-  
fico aprobado por el Gobierno para la ordenación de la  
enseñanza pública universitaria.

2.- El Plan Universitario tendrá una vigencia de cua-  
tro años y evaluará la situación de la enseñanza univer-  
sitaria, determinará sus necesidades y establecerá los ob-  
jetivos y prioridades para su periodo de vigencia, así co-  
mo las necesidades de financiación y los ingresos pre-  
visibles.

3.- El plan definirá programas de actividad estable-  
cidos en función de los objetivos a alcanzar en su pe-  
riodo de vigencia. Este plan subvencionará toda activi-  
dad que exceda la financiación ordinaria.

4.- El Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pú-  
blica Universitaria emitirá, a la finalización de cada cur-  
so académico, un informe de evaluación sobre el grado  
de cumplimiento de los objetivos previstos en el plan  
y la necesidad u oportunidad de introducir modifica-  
ciones o correcciones.

**Artículo 9.**- Programas del Plan Universitario.

El Plan Universitario establecerá como mínimo los  
siguientes programas:

1.- Programas de mejora de la calidad docente en  
los diversos ciclos universitarios.

2.- Programas específicos para la implantación de  
nuevas titulaciones y especialidades hasta su completo

hala badagokio, aurrekoak eraldatzekoak eta ezabatze-koak ere; orobat, fakultateak, goi-mailako eskola teknikoak eta unibertsitate-eskolak sortzeko eta ezabatze-ko berriazko programak.

3.- Ikerketa-programa bereziak: euskal enpresei zuzendutako ikerketa-programa, errendimendu handiko ikerketa-taldeentzako programa eta ikerketa-talde berriak garatzeko programa. Zientifikoak eta teknikariak prestatu eta lortzeko eta unibertsitate-ikerketarako behar den ekipamendu zientifikoa eskuratzeko programak. Elkarlanean egindako ikerketa-proiektuei, bereziki unibertsitateaz kanpoko ikerketa-erakundeekin egindakoei, laguntzeko jarduketak.

4.- Berriazko euskalduntze-programak, unibertsitateak arlo horretan dituen planak bultzatzeko.

5.- Unibertsitatearen kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa hobetzeko programa, dirulaguntza arruntan jaso ez diren jarduketei dagokienez.

6.- Irakasleak eta administrazioko eta zerbitzueta-ko langileak prestatzeko programa, dirulaguntza arruntan jaso ez diren jarduketei dagokienez.

7.- Unibertsitatearentzat, botere publikoentzat edo gizartearentzat garrantzizkoak diren jarduketei buruzko programak.

**10. artikulua.**- Unibertsitate-antolamenduko irizpide eta helburuak.

1.- Titulazioei dagokienez, Unibertsitate-Plana honako irizpide eta helburuei egokituko zaie:

a) Ikasleek unibertsitate aurreko hezkuntza-mailetan egindako ikasketak eta aukerabideak eta unibertsitateak eskaintzen dituen titulazioak elkarri egokitzen saiatuko da.

b) Lanbide-jarduerarako bide ematen duten lehen zikloko titulazioak garatuko dira lehentasunez, bai eta bigarren zikloko ikasketei jarraipena ematen dietenak ere.

c) Titulazio berriak ezartzerakoan eta aurreko titulazioak aldatzerakoan, gizarte-, produkzio- eta zerbitzu-ingurunearen beharrei erantzuneko zaie.

d) Titulazio berriak ezartzerakoan, bestetik, kontuan hartuko da proposatutako titulazioei dagozkien ezaguerara-arloetarako irakasle gaituak eta ikerketa-taldeak dau-den.

Titulazio berri bat ezartzea komenigarria dela ikusten bada, baina horretarako irakasle gaiturik ez bada, titulazioa ezarri aurretik irakasleak prestatzeko programa bat burutu beharko da.

2.- Ikastetxeei dagokienez:

a) Bi zikloko edo bakarrik bigarren zikloko titulu berriak ezartzen direnean, ahalik eta ikastetxe berri gutxien sortzera joko da, baldin eta proposatutako titulu

desarrollo así como para la transformación y supresión, en su caso, de las existentes y para la creación y supresión de Facultades, Escuelas Técnicas Superiores y Escuelas Universitarias.

3.- Programas especiales de investigación: programa de investigación orientada a la empresa vasca, programa para grupos de investigación de alto rendimiento, y programa para el desarrollo de nuevos grupos de investigación. Programas para la formación y dotación de personal científico y técnico y para la dotación del equipamiento científico necesario para la investigación universitaria. Actuaciones para favorecer los proyectos de investigación en colaboración, y en particular con organismos de investigación ajenos a la Universidad.

4.- Programas específicos de euskaldunización que contribuyan al impulso de los planes universitarios en esta materia.

5.- Programa para la mejora de la gestión económico-administrativa de la Universidad, respecto de las actuaciones no incluidas en la subvención ordinaria.

6.- Programa de formación del personal docente y de administración y servicios, respecto de las actuaciones no incluidas en la subvención ordinaria.

7.- Programas relativos a actuaciones de interés relevante para la Universidad, los poderes públicos o los intereses sociales.

**Artículo 10.**- Criterios y objetivos de ordenación universitaria.

1.- En materia de titulaciones, el Plan Universitario se adecuará a los siguientes criterios y objetivos:

a) Se tenderá a adecuar los estudios y opciones seguidos por los y las estudiantes en los niveles de educación previos a la Universidad y la oferta de titulaciones de la Universidad.

b) Se desarrollarán preferentemente titulaciones de primer ciclo que permitan el acceso a la actividad profesional, así como la continuación de estudios de segundo ciclo.

c) En la implantación de nuevas titulaciones y en la modificación de las existentes se atenderán las necesidades del entorno social, productivo y de servicios.

d) En la implantación de nuevas titulaciones se considerará, igualmente, la existencia de personal docente cualificado y la existencia de grupos de investigación en las áreas de conocimiento propias de la titulación que se proponga.

Cuando se pusiera de manifiesto la conveniencia de implantar una nueva titulación y no existiera personal docente cualificado, deberá llevarse a cabo con carácter previo un programa de formación de profesorado.

2.- En materia de centros:

a) Cuando se implanten nuevos títulos de dos ciclos o sólo de segundo ciclo, se procurará limitar la creación de nuevos centros cuando ya exista un centro encarga-

luaren ezaguera-arlo bereko tituluak lortzeko ikasketen administrazio-kudeaketaz eta antolakuntzaz arduratzen diren ikastetxeak badaude.

Proposatutako ezarpena proposatutako tituluen ezaguera-arlo bereko titulurik ez daukan campus batean egiten bada, bi aukera daude: aurretik dagoen ikastetxeren bat eraldatzea edo berri bat sortzea.

b) Orokorrean, ikastetxeen egitura antolatzerakoan ikastetxe bakoitzak titulazio bat baino gehiago —ziklo bateko eta bikoak- eskaintzera joko da, unibertsitate-eskaintzak ahalik eta errentagarritasun handiena izan dezan.

3.- Titulazioen lurralde-banaketari dagokionez:

a) lurralde historiko bakoitzeko egoera sozioekonomikotik eta hori garatzeko planetatik datorren titulazio-eskaera kontuan hartuko da.

b) lehen zikloko tituluak lortzeko bide ematen duten ikasketak lurralde historiko batean baino gehiagotan ezarri ahal izango dira, eskaeraren arabera eta lurralde historiko bakoitzean lanbide-prestakuntza garatzeko jarraibideak kontuan hartuz.

Bigarren eta hirugarren zikloko espezializazioa campus bakoitzean garatuko da, bertan ematen diren titulazioen arabera.

c) Campus bakoitzean eskainiko den toki-kopurua lurralde historikoaren biztanleria eta bilakaera demografikoaren arabera zehaztuko da.

**11. artikulua.**— Unibertsitate-Plana gertatzeko prozedura.

1.- Gizarte-Kontseiluak, dagokion eskumen-esparruan eta Gobernu-Batzordearen proposamenez, Unibertsitate-Planaren aurrerapen bat onartuko du eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari bidaliko dio. Egitasmo horretan, lege honetan aurreikusitako egitura eta edukiak jasoko dira.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Unibertsitate-Plana egiteari begira, lege honetan aurreikusitako programa-kontratuen bidez finantzatu litezkeen jarduketak bidaliko dizkio unibertsitateari.

2.- Unibertsitate Planaren aurrerapena aurkeztu eta hiru hilabeteko epean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak unibertsitateak onartutako aurrerapen horri buruzko txostena egingo du.

3.- Aurreko idatz-zatian aipatutako txostena egin eta hilabeteko epean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Unibertsitate-Irakaskuntza Publiko Koordinatze Kontseilua biltzeko deia egingo du, planari buruzko txostena egin dezan. Erabakiak kontseiluko kideen gehiengo osoz hartuko dira, eta kontseiluko buruaren botoak ez du ebazte-indarririk izango boto-berdintasuna izanez gero.

do de la gestión administrativa y de la organización de las enseñanzas conducentes a la obtención de títulos del mismo campo de conocimientos que el título propuesto.

Cuando la implantación propuesta se realice en un campus en el que no existen previamente otros títulos del mismo campo de conocimiento que el propuesto, cabrá optar entre la transformación de un centro ya existente o la creación de uno nuevo.

b) En general deberá tenderse a la configuración de centros que ofrezcan varias titulaciones, de uno y de dos ciclos, buscando ofrecer una mayor rentabilidad de la oferta universitaria.

3.- En relación con la distribución territorial de las titulaciones:

a) Se considerará la demanda de titulaciones derivada del entorno socioeconómico de cada territorio histórico y de sus planes de desarrollo.

b) Los estudios conducentes a la obtención de títulos de primer ciclo podrán implantarse en más de un territorio histórico según la demanda y teniendo en cuenta las líneas de desarrollo de la formación profesional en cada territorio histórico.

La especialización de segundo y tercer ciclo se desarrollará en cada campus según las titulaciones que se impartan en ellos.

c) La oferta de plazas en cada uno de los campus tendrá en cuenta la población del territorio histórico y la evolución demográfica del mismo.

**Artículo 11.**— Procedimiento para la elaboración del Plan Universitario.

1.- El Consejo Social, en el ámbito de sus competencias y a propuesta de la Junta de Gobierno, acordará para su remisión al Departamento de Educación, Universidades e Investigación un avance del Plan Universitario con la estructura y contenidos previstos en la presente ley.

A los efectos de su elaboración, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación remitirá a la Universidad las actuaciones que podrían financiarse mediante los contratos-programa previstos en la presente ley.

2.- En los tres meses siguientes a la presentación, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación emitirá informe sobre el avance de Plan Universitario acordado por la Universidad.

3.- En el plazo de un mes desde que se emitiera el informe a que se refiere el apartado anterior, el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación convocará el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria para que informe el plan. Los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de los miembros del Consejo, sin que, a estos efectos, el voto del Presidente tenga carácter dirimente en caso de empate.

4.- Unibertsitate-Plana onartzea Gobernuari dagokio, eta Eusko Legebiltzarrari bidali beharko zaio arauzko tramitazioa komunikazio gisa egiteko.

5.- Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatze Kontseiluak, urtero, txosten bat egingo du programen helburuak noraino bete diren eta planean aldatzeko edo zuzenketak sartzea beharrezko edo egoki den ebaluatuz. Unibertsitate-Planean egindako aldaketek gastuaren igoera badakarte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Gobernu-Kontseiluari aurkeztu beharko dizkio, eta honek ezetsi edo onartu egingo ditu.

#### BIGARREN SEKZIOA UNIBERTSITATEAREN EGITURA

##### 12. artikulua.- Ikastetxeak sortzea eta ezabatzea.

Fakultateak, Goi-eskola teknikoak, unibertsitate-eskolak eta unibertsitate-institutuak sortzea edo ezabatzea Gobernuari dagokio, Gizarte-Kontseiluaren proposamenez eta Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatze Kontseiluak eta Unibertsitate-Kontseiluak txostena egin eta gero. Onartzeko, beharrezkoa izango da Unibertsitate-Planak ikastetxe hori sortzeko edo ezabatzeko aukera aurreikusi izana.

##### 13. artikulua.- Ikastetxeak atxikitzea.

1.- Gobernuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, goi-mailako irakaskuntzako ikastetxeak unibertsitateari atxikitze baldintzak eta prozedurak ezarriko ditu, unibertsitatearen egituraren barruan ez badaude.

2.- Titularitate publiko edo pribatuko ikerketa-zentroak edo arte-sormenerako ikastegiak unibertsitate-institutu gisa atxiki ditzake Unibertsitateak. Atxikitzea hitzarmen bidez arautuko da, Unibertsitateko Gizarte-Kontseiluaren proposamenez, eta Gobernu-Kontseiluak onartuko du, Unibertsitate-Kontseiluak txostena egin eta gero.

Atxikitako ikastetxe eta ikerketa-zentroetan, unibertsitateak bere dituen tituluak lortzeko bide ematen duten irakaskuntzak eman ahal izango dira, betiere atxikipen-hitzarmenean horrela hitzartu bada.

3.- Era berean, Gobernuari dagokio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, oinarriko legedian ezarritako baldintzak bete ondoren, goi-mailako ikastetxe jakin batzuk unibertsitate bati atxikitzea onartzea, baldin eta ikastetxe horien irakaskuntzek bide ematen badute beste estatu batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemen arabera lege honen 17. artikuluko a) letran jasotako tituluekin homologagarriak diren tituluak lortzeko. Atxikipena, onartu eta gero, ikastetxe eta unibertsitatearen arteko hitzarmenaz burutuko da. Atxikipenak balioa izan dezan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak onartu beharko du berariaz.

4.- La aprobación del Plan Universitario corresponderá al Gobierno, debiendo ser elevado al Parlamento Vasco para su tramitación reglamentaria como comunicación.

5.- Anualmente el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria emitirá un informe de evaluación sobre el grado de cumplimiento de los objetivos de los programas y sobre la necesidad u oportunidad de introducir modificaciones en el plan. Las modificaciones del Plan Universitario que impliquen aumento de gasto deberán ser elevadas por el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación al Consejo de Gobierno, que podrá rechazarlas o aprobarlas.

#### SECCIÓN SEGUNDA ESTRUCTURA UNIVERSITARIA

##### Artículo 12.- Creación y supresión de centros.

La creación o supresión de Facultades, Escuelas Técnicas Superiores, Escuelas Universitarias e Institutos Universitarios corresponde al Gobierno, a propuesta del Consejo Social y previo informe del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria y del Consejo de Universidades. Para su aprobación será necesario que el Plan Universitario haya incluido la posibilidad de crear o suprimir dicho centro.

##### Artículo 13.- Adscripción de centros.

1.- El Gobierno, a propuesta del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación, establecerá las condiciones y procedimientos para la adscripción a la Universidad de centros docentes de enseñanza superior no integrados en su estructura.

2.- La Universidad podrá adscribir centros de investigación o creación artística de titularidad pública o privada como institutos universitarios. La adscripción se regulará mediante convenio, a propuesta del Consejo Social de la Universidad, y, previo informe del Consejo de Universidades, será aprobada por el Consejo de Gobierno.

Los centros docentes y de investigación adscritos podrán impartir enseñanzas conducentes a la obtención de títulos propios de la Universidad siempre que así se acuerde en el convenio de adscripción.

3.- Corresponde igualmente al Gobierno, a propuesta del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación, aprobar, cumplidos los requisitos establecidos en la legislación básica, la adscripción a una Universidad de centros de enseñanza superior que impartan, conforme a sistemas educativos vigentes en otros Estados, enseñanzas conducentes a la obtención de títulos homologables a los títulos contemplados en la letra a) del artículo 17 de la presente ley. La adscripción, una vez acordada, se llevará a cabo mediante convenio entre el centro y la Universidad, para cuya validez se requerirá la aprobación expresa del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

HIRUGARREN SEKZIOA  
KOORDINAZIOA

**14. artikulua.**– Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.

1.– Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua sortzen da, aholkularitza eta partaidetzako organo gisa, unibertsitate publikoko sistemaren xedeak eta helburuak zehazteko. Ondorengoak dira bere egitekoak:

a) Unibertsitate-Planari buruzko txostena egitea lege honetan ezarritakoaren arabera eta Gobernuak behin betiko onartu aurretik.

b) Titulazioak ezartzeko edo ezabatzeko proposamenei buruzko txostenak egitea, baita ere ikasketa-planak egiteko eta aldatzeko proposamenei eta ikastetxeak sortzeko edo ezabatzeko proposamenei buruzkoak.

c) Unibertsitate-Plana nola gauzatzen den aztertzea eta bete dadin zaintzea, eta, hala badagokio, beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.

d) Unibertsitateak bere aurrekontuak egiterakoan, irakasleen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen zerrenda taiutzerakoan eta inbertsiorako eta azpiegiturarako urte anitzeko programa burutzerakoan erabilitako irizpideen berri izatea.

e) Lege hau garatzeko ematen diren Gobernuaren xedapen orokorren egitasmoei buruzko txostenak egitea.

f) Unibertsitate berriak sortzeko eta aitortzeko prozedurei buruzko txostena egitea, dagokion lege-egitasmoa Gobernuari bidali baino lehen.

g) Unibertsitate eta enpresen artean harremanak sustatzea, horretarako bideak eta neurriak proposatzea eta Gobernuak proposatzen dituen neurriei buruzko txostena egitea.

h) Ikasketa eta ikerketarako beka eta dirulaguntzen arloko oinarritzko jarraibideei buruzko txostena egitea.

i) Lege honek eta ordezkaturako erakunde eta organoek, bere egitekoekin bat etorritik, ematen dizkiotenak.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua edo horren ordezkaria izango da kontseiluko burua. Kontseiluko kideak honako hauek izango dira:

a) Kontseiluko burua.

b) Bost kide, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkari, sailaren titularrak izendatuta.

c) Sei kide, unibertsitatearen ordezkari:

– Unibertsitatearen errektorea.

– Unibertsitateko hiru kide, errektoreak izendatuta.

– Gizarte-Kontseiluko presidentea.

SECCIÓN TERCERA  
COORDINACIÓN

**Artículo 14.**– Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria.

1.– Se crea el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria como órgano de asesoramiento y participación para la determinación de las finalidades y objetivos del sistema universitario público. Sus funciones son las siguientes:

a) Informar el Plan Universitario en los términos establecidos en la presente ley con carácter previo a su aprobación definitiva por el Gobierno.

b) Informar las propuestas de implantación o supresión de titulaciones, así como las propuestas de elaboración y modificación de los planes de estudios y las de creación o supresión de centros.

c) Seguir la ejecución y cuidar del cumplimiento del Plan Universitario y proponer, en su caso, las modificaciones que sean precisas.

d) Ser informado sobre los criterios seguidos por la Universidad en la elaboración de sus presupuestos, plantillas docente y de administración y servicios y ejecución del programa plurianual de inversión en infraestructuras.

e) Informar los proyectos de disposiciones generales de competencia del Gobierno que se dicten en desarrollo de la presente ley.

f) Informar en los procedimientos de creación y reconocimiento de nuevas Universidades, con carácter previo a la remisión al Gobierno del correspondiente proyecto de ley.

g) Fomentar las relaciones Universidad-empresa, proponer procedimientos y medidas al efecto e informar las medidas que proponga el Gobierno.

h) Informar sobre las directrices básicas en materia de becas y ayudas de estudio y a la investigación.

i) Las demás que le atribuye la presente ley y cualquier otra que le encomienden las instituciones y órganos representados, de conformidad con sus funciones.

2.– El Consejo estará presidido por el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación, o persona en quien delegue, y estará compuesto por:

a) Su Presidente.

b) Cinco vocales en representación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por designación de su titular.

c) Seis vocales en representación de la Universidad:

– El Rector o Rectora de la Universidad.

– Tres miembros de la Universidad nombrados por el Rector.

– El Presidente o Presidenta del Consejo Social.

– Gizarte-Kontseiluko kide bat, interes sozialen ordezkarien artean aukeratuta eta ordezkariak bere izen datuta.

3.– Koordinazio-Kontseiluaren jardura-arauak kontseiluaren beraren erabakiz onartuko dira, eta presidentearen botoak ez du ebatze-indarrik izango boto-berdintasuna gertatuz gero.

## BIGARREN KAPITULUA IKASKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA

### LEHENENGO SEKZIOA IRAKASKUNTZA

#### 15. artikulua.– Irakaskuntzaren kalitatea.

1.– Ikasleak lanbide, zientzia, teknika, arte eta kulturaren arloan prestatzea eta ikerlanak egitea unibertsitateak gizarteari ematen dion zerbitzuaren edukien zati funtsezkoa dira.

2.– Unibertsitateak, ikasketa-planak proposatu, egin, onartu eta ezartzerakoan, ezaguera-eskaerari eta inguru sozioekonomiko eta profesionalaren beharrei erantzun die. Bestetik, irakaskuntza teoriko eta praktikoa irakasleentzako betebeharrak eta ikasleentzako betebeharrak eta eskubide direnez uztartu beharko ditu.

Irakaskuntza praktikoa programatzerakoan enpresa-elkarteen, administrazio publikoen eta elkargo profesionalen laguntza jaso ahal izango da.

3.– Unibertsitateak, Gizarte-Kontseiluaren laguntzarekin, irakaskuntza hobetzeko eta irakaskuntzen kalitatea ebaluatzeko programak egin eta onartuko ditu, bere jardura guztien kalitatea kontrolatzeko programen barruan. Programa horietan unibertsitateaz kanpoko aditu eta profesionalak parte hartuko dute.

4.– Ebaluazioak kontuan hartuko dira irakaskuntza-osagarriak mantendu, kendu edo berrituzerakoan, bai eta ezar litezkeen beste ordainsari osagarrien ondorioetarako.

Ebaluazio horiek kontuan hartuko dira, halaber, ematen diren irakaskuntzen kalitatean ikusten diren hutsuneak zuzentzeko.

16. artikulua.– Unibertsitateko funtzioaren kalitate-osagarriak.

Gizarte-Kontseiluak, Gobernu-Batzordearen proposamenez, irakaskuntza eta ikerketaren beharrak zehaztuko ditu. Era berean, irakaskuntzaren, ikerketaren eta erakunde-jardueraren arloan irakasleak banakako ordainsari osagarriak jasotzeko eskubidea ematen duten garrantzizko merezimenduak zehaztuko ditu.

#### 17. artikulua.– Titulazioak.

Unibertsitateak ematen dituen irakaskuntzek honako titulu hauek ematea ekarriko dute:

– Un miembro del Consejo Social, elegido entre los representantes de los intereses sociales y designado por los mismos.

3.– Las normas de funcionamiento del Consejo de Coordinación se aprobarán mediante acuerdo del propio consejo, sin que en ningún caso el voto del Presidente tenga carácter dirimente en caso de empate.

## CAPÍTULO SEGUNDO DEL ESTUDIO Y LA DOCENCIA

### SECCIÓN PRIMERA DE LA DOCENCIA

#### Artículo 15.– Calidad de la enseñanza.

1.– La formación profesional, científica, técnica, artística y cultural de los y las estudiantes constituye, junto con la investigación, parte esencial del contenido del servicio a la sociedad que lleva a cabo la Universidad.

2.– La Universidad, en la propuesta, elaboración, aprobación e implantación de los planes de estudios atenderá su adecuación a la demanda de conocimiento y a las necesidades del entorno socioeconómico y profesional y habrá de conjugar las enseñanzas teóricas y prácticas como deber del profesorado y como deber y derecho de los y las estudiantes.

En la programación de las enseñanzas prácticas se podrá contar con la colaboración de las organizaciones empresariales, las Administraciones públicas y los colegios profesionales.

3.– La Universidad elaborará y aprobará, con la colaboración del Consejo Social, programas de mejora de la calidad docente, así como de evaluación de la calidad de las enseñanzas, en el marco de los programas de control de calidad sobre el conjunto de sus actividades. En la realización de esos programas habrán de participar expertos y profesionales ajenos a la Universidad.

4.– Las evaluaciones serán tenidas en consideración a los efectos de mantener, rescindir o renovar los complementos de docencia, así como a los efectos de otros complementos retributivos que pudieran establecerse.

Estas evaluaciones también se tendrán en cuenta para corregir las deficiencias detectadas en la calidad de las enseñanzas impartidas.

Artículo 16.– Complementos de calidad de la función universitaria.

El Consejo Social, a propuesta de la Junta de Gobierno, determinará las necesidades docentes e investigadoras, así como los méritos relevantes que, en el ámbito docente, investigador y de actividad institucional, den derecho a la percepción por los profesores y profesoras de complementos retributivos individuales.

#### Artículo 17.– Titulaciones.

Las enseñanzas que imparta la Universidad darán lugar a la expedición de las siguientes titulaciones:

- a) Estatuak homologatutako titulu ofizialak.
- b) Unibertsitateak bere dituen titulu eta diplomak, bere estatutuetan araututa.
- c) Unibertsitateak bere dituen tituluak, Autonomia Erkidegoaren aitortpena daukatena eta erregelamenduz zehaztutakoaren arabera ezarritako jarraibideekin bat etorritu antolatuta eta eman direnak.

BIGARREN SEKZIOA  
IKASLEEN ESKUBIDE  
ETA BETEBEHARRAK

**18. artikulua.**– Xedapen orokorra.

1.– Unibertsitateko ikasleek sekzio honetan jasotako eskubide eta betebeharrak izango dituzte, haiek berek edo haiek askatasun osoz aukeratutako ordezkariak bete ditzaketena.

2.– Ezin izango da inor baztertu diru, arraza, sexu, sexu-joera, pentsakera, erlijio, naziotasun edo beste edozein arrazoi pertsonal edo sozialengatik.

3.– Unibertsitatearen estatutuek ikasleek eskubide eta betebeharrak garatuko dituzte, horiek bermatzeko eta betetzeko xedapen, neurri eta prozedura egokienak ezarritu.

**19. artikulua.**– Oinarrizko eskubideak.

Ikasle guztiek unibertsitatearen estatutuetan zehaztutako eskubideak dituzte. Besteak beste, honako hauek:

a) Ikasketak aukeratzeko eta burutzeko eskubidea, indarrean dagoen legediak eta unibertsitatearen arauak ezarritakoen arabera. Horretarako, Autonomia-Erkidegoak eta unibertsitateak, ahal duten neurrian, laguntzeko politikak egin eta onartuko dituzte inor diru-ezagatik baztertua gera ez dadin.

b) Matrikulatutako ikasketak jasotzeko eskubidea, horretarako jarritako baliabideekin, eta prestakuntza-prozesuan biziki parte hartzeko eskubidea.

c) Irakaskuntzak ikasketa-planaren arabera askatasunez aukeratzeko eskubidea. Ikasketxeak, ahal duten neurrian, irakaskuntza ikasleek irakaslea askatasunez aukeratzeko moduan antolatzen saiatuko dira.

d) Askatasunez ikasteko eskubidea, dagokion programan finkatutako edukien eta helburuen arabera.

e) Unibertsitatearen laguntza jasotzeko eskubidea, irakasleek tutoretza-sistema eginkor baten bitartez horretarako ezarritako ordutegian. Era berean, irakasleengandik eta ikerketa-lanen zuzendariengandik zuzeneko laguntza jasotzeko eskubidea.

f) Kalifikazio objektiboak jasotzeko eskubidea, kalifikazioak berraztertze eskatzeko eta, unibertsitateak ezarritako prozeduraren arabera, kalifikazioa behin be-

a) Títulos oficiales homologados por el Estado.

b) Títulos y diplomas propios de las Universidades, regulados en sus Estatutos.

c) Títulos propios de las Universidades reconocidos por la Comunidad Autónoma, que sean organizados e impartidos conforme a lo que reglamentariamente se establezca.

SECCIÓN SEGUNDA  
DERECHOS Y DEBERES DE LOS  
Y LAS ESTUDIANTES

**Artículo 18.**– Disposición general.

1.– Los y las estudiantes universitarios tendrán los derechos y los deberes a los que se refiere la presente sección, ejercidos por sí o por medio de sus representantes libremente elegidos.

2.– Nadie podrá ser discriminado por razones económicas, de raza, sexo, opción sexual, opinión, religión, nacionalidad o cualquier otra condición personal o social.

3.– Los Estatutos de la Universidad desarrollarán los derechos y los deberes de los y las estudiantes, estableciendo las disposiciones, las medidas y los procedimientos más adecuados para su garantía y cumplimiento.

**Artículo 19.**– Derechos básicos.

Todos los y las estudiantes tienen los derechos que se determinan en los Estatutos de las Universidades, siendo a título enunciativo los siguientes:

a) A elegir y realizar sus estudios en los términos en que lo establezcan la legislación vigente y las normas de permanencia en la Universidad. A tal efecto, la Comunidad Autónoma y la Universidad, en la medida de sus posibilidades, elaborarán y aprobarán políticas asistenciales para que nadie quede excluido por causa de insuficiencia económica.

b) A recibir las enseñanzas para las que se hubieran matriculado y con los medios dispuestos al efecto, y a participar activamente en el proceso de su formación.

c) A la libre elección de enseñanzas conforme al correspondiente plan de estudios. Los centros, en la medida de sus posibilidades, procurarán organizar la enseñanza de manera que se haga posible la libre elección de profesor.

d) A la libertad de estudio, dentro de los contenidos y objetivos fijados en el correspondiente programa.

e) A ser asistidos dentro del horario de permanencia en la Universidad que tengan establecido los profesores, mediante un sistema eficaz de tutorías, y a ser asesorados directamente por quienes les impartan las enseñanzas y les inicien en tareas de investigación.

f) A ser calificados objetivamente así como a requerir la revisión de las calificaciones y ejercer los medios de impugnación correspondientes a través del procedi-

tikoa izan aurretik aurkatzeko bideak erabiltzeko eskubidea.

g) Agintari akademikoei ematen den irakaskuntza-ren kalitateari buruzko erreklamazioak eta keak egiteko eskubidea.

h) Aukerako irakasgaien eta irakasgai libreen behar adinako eskaintza bermatuta izateko eskubidea.

i) Unibertsitatearen barruan elkartzeko eta adierazpenak eta bilerak egiteko eskubidea, muga bakarrak jardura akademikoaren ohiko funtzionamenduarenak izango direla. Unibertsitateak erraztasunak emango ditu ikasle-elkarteek gelak eta diru-baliabideak izan ditzaten euren ekintzak garatzeari begira.

j) Unibertsitateko organo guztien hautesle eta hautagai izateko eskubidea, sufragio unibertsal, zuzen, berdin eta isilpekoaz.

k) Unibertsitatea zuzentzeko eta kudeatzeko organoetan, ikastegietan, departamentuetan eta institutuetan askatasunez hautatutako ordezkarien bitartez parte hartzeko eskubidea. Era berean, ikasketa-, administrazio- edo ekonomia-kontuei buruz edozein kide aintzeko edo kide bakarreko organori eskatutakoen berri jasotzeko eskubidea izango dute.

l) Lege honetan eta gainontzeko antolamendu juridikoan aitortutako edo ezarritako eskubideak.

## 20. artikulua. – Betebeharrak.

1.– Ikasle guztiek unibertsitateen estatutuetan zehaztutako betebeharrak dituzte. Besteak beste, honako hauek:

a) Gainontzeko unibertsitate-elkarterekin elkarlanean aritzea unibertsitatearen helburuak lortzeari begira.

b) Ikastea eta ikertzea, dagozkion ikasketa-planekin bat etorritik.

c) Besteen legezko eskubideak errespetatzea eta beste beren betebeharrak bete ditzaten errespetatzea.

d) Unibertsitateko zentro eta zerbitzuetan indarrean dauden arauak betetzea, bai eta unibertsitatearen ondarea eta haien esku jarritako baliabideak egoki erabiltzea ere.

e) Ordezkari gisa dagozkien eginkizunak betetzea.

f) Diziiplina akademikorako arauak eta estatutuetan ezarritakoak betetzea.

2.– Unibertsitateek egin eta onartutako diziplina-erregelamenduek honako hauek bermatuko dituzte: huts eta zigorren sailkaketa-printzipioa, horien arteko heintasun-irizpideak, eta espedientatuaren entzunaldi-eskubidea, leporatzen zaizkion auziei buruzko arrazoi-bideak eman eta probak proposatzeko modua izan dezan, bidezkoa den erabakia hartu baino lehen.

miento que establezca la Universidad, con anterioridad a que la calificación se convierta en definitiva.

g) A formular ante las autoridades académicas reclamaciones y quejas acerca de la calidad de la enseñanza impartida.

h) A que se les garantice una suficiente oferta de asignaturas optativas y de libre elección.

i) A la libertad de asociación, expresión y reunión, dentro de los locales universitarios, sin otras limitaciones que las resultantes del normal funcionamiento de la actividad académica. La Universidad facilitará locales a las asociaciones de estudiantes, así como medios económicos para el desarrollo de sus actividades.

j) A ser elector y elegible a todos los órganos universitarios colegiados mediante sufragio universal, directo, igual y secreto.

k) A participar, mediante representantes libremente elegidos, en los órganos colegiados de gobierno y gestión de la Universidad, sus centros, departamentos e institutos, debiendo recibir la información que soliciten de cualquier órgano colegiado o unipersonal en relación con los aspectos académicos, administrativos y económicos de su competencia.

l) Los demás reconocidos o establecidos en la presente ley y en el resto del ordenamiento jurídico.

## Artículo 20. – Deberes.

1.– Todos los y las estudiantes tienen los deberes que se determinan en los Estatutos de las Universidades, siendo a título enunciativo los siguientes:

a) La cooperación con el resto de la comunidad universitaria para el logro de los fines de la Universidad.

b) El estudio y la investigación conforme a los correspondientes planes de estudios.

c) El respeto a los legítimos derechos y cumplimiento de los deberes de los demás.

d) El respeto a las normas vigentes en los diferentes centros y servicios universitarios, así como el uso correcto del patrimonio de la Universidad y los medios puestos a su disposición.

e) El cumplimiento de las tareas representativas para las que sean elegidos.

f) El cumplimiento de las normas de disciplina académica y cuantas otras establezcan los Estatutos.

2.– Los reglamentos disciplinarios que elaboren y aprueben las Universidades garantizarán suficientemente el principio de tipicidad de faltas y sanciones, la proporcionalidad entre las mismas y el derecho de audiencia de cualquier expedientado de manera que pueda formular alegaciones y proponer pruebas, con anterioridad a la resolución que proceda, en relación con las conductas que se le imputen.



**21. artikulua.**– Ikasketei buruzko argibideak jasotzeko eskubidea.

Departamentuek edo organo baliokideek eta, hala badagokio, unibertsitate-institutuek honako hauek behar bezala jakinarazi beharko dituzte matrikulatzeko epea ireki baino lehen:

a) Irakasgai edo jakintzagai bakoitzaren programa, gai bakoitzari dagokionez honakook adieraziz: ardatz-koa, derrigorrezkoa, aukerakoa edo librea den; dagozkion kredituak; bibliografia, metodoak eta helburuak.

b) Irakaskuntza-eskaintza, batez ere irakaskuntzak ematen dituzten irakasleak zeintzuk diren adieraziz eta, irakaslea aukeratzea bermatuta ez dagoenean, irakaskuntzak zein taldetan emango dituzten azalduz.

c) Irakasgai edo jakintzagai bakoitza berariaz ebaluatzeko irizpideak.

**22. artikulua.**– Irakaskuntzaren ebaluazioan parte hartzeko eskubidea.

1.– Irakasleek, ikasturte bakoitzaren amaieran, irakasleek emandako irakaskuntzaren kalitatea ebaluatuko dute unibertsitateak horretarako egindako proba-sistemaren arabera. Ikasleen ordezkariak parte hartuko dute proben edukia egiterakoan.

Ikasleek egindako ebaluazioak kontuan hartuko dira lege honen 15.4 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

2.– Departamentuen bitartez, ebaluazioen emaitzen, kexen eta erreklamazioen berri emango zaie irakasleei, egoki diren arrazoibideak emateko aukera izan dezaten.

#### HIRUGARREN KAPITULUA IKERKETA UNIBERTSITATEAN

**23. artikulua.**– Unibertsitatearen zeregina.

Departamentuek, unibertsitate-institutuek eta irakasleek burututako ikerketak bultzatu, finantzatu eta ebaluatuko egingo ditu unibertsitateak.

**24. artikulua.**– Ikertzeko askatasuna.

Irakasle eta ikertzaileei, ikerketa-lanetan parte hartzen duten ikasleak barne, ikertzeko askatasuna bermatzen zaie kontzientzia-askatasunaren indarrez, legeek eta elkarte zientifikoaren kode edo arau deontologikoek ezarritakoez beste mugarik gabe.

**25. artikulua.**– Ikerketa departamentu eta institutuetan.

1.– Beren jakintza-eremuari dagozkion ikerketa eta irakaskuntzak antolatu eta garatzeko oinarrizko unitateak dira departamentuak.

**Artículo 21.**– Derecho a la información académica.

Los departamentos u órganos equivalentes y, en su caso, los institutos universitarios darán a conocer con la suficiente publicidad y antes de la apertura del periodo de matrícula:

a) Programa de cada asignatura, materia o disciplina con indicación del carácter troncal, obligatorio, optativo o libre de cada una de ellas; créditos que le corresponden; bibliografía, métodos y objetivos.

b) Oferta docente, en particular identificando los profesores o profesoras que dispensen las enseñanzas y, cuando no quede asegurada la libre elección de profesor, grupo en el que vayan a impartirlas.

c) Criterios de evaluación específica de cada asignatura, materia o disciplina.

**Artículo 22.**– Derecho a participar en la evaluación de la actividad docente.

1.– Los y las estudiantes evaluarán al final de cada curso académico la calidad de la docencia impartida por el profesorado, conforme al sistema de pruebas que elabore al efecto la Universidad. En la elaboración del contenido de las pruebas se contará con la participación de representantes de los y las estudiantes.

Las evaluaciones hechas por los y las estudiantes se tendrán en consideración a los efectos previstos en el artículo 15.4 de la presente ley.

2.– Los resultados de las evaluaciones, así como las quejas y reclamaciones, serán comunicados a los profesores y profesoras, a través de los departamentos, a fin de que formulen las alegaciones que correspondan.

#### CAPÍTULO TERCERO DE LA INVESTIGACIÓN EN LA UNIVERSIDAD

**Artículo 23.**– Tarea universitaria.

La Universidad impulsará, financiará y evaluará la actividad de investigación llevada a cabo por los departamentos, los institutos universitarios y el profesorado.

**Artículo 24.**– Libertad de investigación.

Los profesores y profesoras e investigadores e investigadoras, incluidos los y las estudiantes que participen en las tareas de investigación, encuentran garantizada la libertad de investigación en la libertad de conciencia sin más limitaciones que las establecidas por las leyes y los códigos o reglas deontológicas aprobados por la comunidad científica.

**Artículo 25.**– Investigación en departamentos e institutos.

1.– Los departamentos son las unidades básicas encargadas de organizar y desarrollar la investigación y las enseñanzas propias de su respectiva área de conocimiento.

2.- Unibertsitate-institutuak, funtsez, ikerketa-zentroak dira. Institutu horiek sortzeko edo unibertsitatean sartzeko honako hauek bete beharko dira:

a) Izen handiko ikertzaileen zientzia-taldeak alde aurretik egotea, egiaztatutako ikerketa-irizpideak dituztenak.

b) Kalitate bikaina egiaztatzea unibertsitateaz kanpoko ebaluazio baten bitartez.

c) Unibertsitate-institutuan ordezkatutako zientzia-ezagueraren helburuaren interes estrategikoa.

d) Dirulaguntza arruntaz kanpoko diru-baliabideak, erakunde publiko edo pribatuekin izenpetutako ikerketa-kontratu edo -proiektuen bitartez lortutakoak.

e) Institutua sortuz lortu nahi diren helburu zientifikoak unibertsitate-departamentu batean lortu ezinaren zergatia.

3.- Unibertsitate-institutuak sortzea eta ezabatzea Gobernu-Kontseiluari dagokio, Unibertsitateko Gizarte-Kontseiluaren proposamenez eta Unibertsitate-Kontseiluak txostena egin eta gero.

#### **26. artikulua.**– Irakasleak eta ikerketa.

1.- Irakasle doktoreek departamentu eta institutuetan ikerketa-lanak egiteko eskubide eta betebeharrak daukate, banaka edo beste ikertzaile edo irakasleen laguntzaz.

2.- Departamentuek, aldi batean, irakaslanetik libre utz ditzakete irakasleak, egiten ari diren ikerketen-gatik, betiere indarrean dagoen antolamendu juridikoan zehaztutakoaren arabera.

3.- Indarrean dagoen antolamendu juridikoan aurreikusitakoaz gain, unibertsitatearen errektoreak, irakasleak aldi batean -urtebetez gehienez ere- beste unibertsitate edo ikerketa-zentro publiko edo pribatueta- ra lekualdatzea erabaki dezake unibertsitatearen edo departamentu eta institutuen aurrekontuen kontura, ikerketa, garapen edo berrikuntzarako lanak egiteko, edo horrelako lanak egiteko baliagarriak diren ezaguerak hartzeko. Proposamena egitea, nolana ere, irakaslearen departamentuari dagokio, eta arrazoiak eman egin beharko du.

Horretan emandako denbora lanalditzat joko da ondorio guztietarako.

4.- Unibertsitateak ikertzaileak kontratatu ahal izango ditu lan berezi eta denboraldi jakinetarako. Ikerketa-proiektuen zuzendaritza-lanen kasuan, ikertzaile horiek doktore-titulua izan beharko dute ezinbestean. Hautaketa, ahal dela, lehiaketa publikoaren bitartez egingo da.

#### **27. artikulua.**– Ikerketa hitzartua.

1.- Unibertsitateak harremanak izan ditzake Euskal Herriko teknologi zentroekin, enpresen eta baltzu zien-

2.- Los institutos universitarios son centros básicamente de investigación. Su creación o adscripción a la Universidad requerirá:

a) Existencia previa de grupos científicos de acreditado perfil investigador, con líneas de investigación acreditadas.

b) Acreditación de calidad excelente mediante una evaluación externa a la Universidad.

c) Interés estratégico del objeto de conocimiento científico representado en el instituto universitario.

d) Recursos económicos al margen de la subvención ordinaria, a través de contratos o de proyectos de investigación firmados con entidades públicas o privadas.

e) Motivación de las razones por las que los objetivos científicos que se pretenden mediante la creación del instituto no se pueden alcanzar en un departamento universitario.

3.- La creación y supresión de los institutos universitarios será acordada por el Consejo de Gobierno, a propuesta del Consejo Social de la Universidad y previo informe del Consejo de Universidades.

#### **Artículo 26.**– Los profesores y la investigación.

1.- Los profesores doctores y profesoras doctoras tienen el derecho y el deber de llevar a cabo actividades de investigación, individualmente o agrupados con otros investigadores e investigadoras o profesores y profesoras en el marco de los departamentos e institutos.

2.- Los departamentos podrán liberar temporalmente de la carga docente a los profesores y profesoras por razón de las tareas de investigación que lleven a cabo, según lo previsto en el ordenamiento jurídico vigente.

3.- Además de lo previsto en el ordenamiento jurídico vigente, el Rector o Rectora de la Universidad podrá acordar, con cargo al presupuesto de la Universidad o de los departamentos e institutos, traslados temporales de profesores y profesoras por un plazo no superior a un año a otras Universidades o centros de investigación, públicos o privados, para llevar a cabo tareas de investigación, desarrollo o innovación, o para la adquisición de conocimientos de interés para dichas tareas. La propuesta corresponderá, en todo caso, al departamento a que pertenezca el profesor o profesora y será motivada.

El tiempo de estancia se considerará a todos los efectos como situación en activo.

4.- La Universidad podrá contratar para tareas específicas y por periodos de tiempo establecido a investigadores que, cuando se trate de tareas de dirección de proyectos de investigación, deberán tener necesariamente el título de doctor. La selección se hará preferentemente mediante concurso público.

#### **Artículo 27.**– Investigación concertada.

1.- La Universidad podrá relacionarse con los centros tecnológicos, las unidades de investigación y desa-

tifikoen ikerketa eta garapenerako (I+Grako) unitateekin eta berrikuntza-jarduerak helburu dituzten beste-lako erakundeekin. Elkarlan hori hainbat modutan gauza daiteke: azpiegiturak batera erabiliz, langileak trukatzuz, ikerketa-proiektuak elkarrekin eginez, edo lortu beharreko helburuetarako egokiak den beste edozein ekintza burutuz.

2.- Unibertsitateak, bere barne-araudiaren arabera, ikerketarako proiektu edo hitzarmenak hitzartu ditzake beste pertsona fisiko edo juridikoekin.

Unibertsitateak, hitzartutako ikerketa baimentzeko irizpideak zehaztuko ditu, gazte ikertzaileak bertara sartzeari lehentasuna ematen saiatuz, eta ekintza horiek ukatzeko ahalmena izango du departamentu edo institutuaren irakaskuntza- eta ikerketa-eginkizunak behar bezala bermatzen ez badira.

3.- Hitzartutako ikerketa-hitzarmenak unibertsitatearen estatutuetan horretarako zehaztutako ordezkariak izenpetu beharko dituzte. Hitzarmen horietatik etorritako diru-kopuruak unibertsitatearen aurrekontuan sartuko dira.

#### **28. artikulua.**– Ebaluazioa.

1.- Departamentuek eta unibertsitate-institutuek, urtero, burututako ikerketa-ekintzei buruzko txosten bat aurkeztuko diote unibertsitateari, estatutuaren araututakoaren arabera. Txostena ikasurte bati buruzkoa izango da eta urtea amaitzerakoan aurkeztuko da.

2.- Txosten horiek dagokion ezaguera-esparruko zientzia-elkarteko kideek osatutako batzorde burujabeek ebaluatuko dituzte bi urtez behin, irizpide objektiboekin. Zientzialari horiek unibertsitatetik eta departamentu edo institutuarekin harremanetan dauden edo egon diren zentroetatik kanpokoak izango dira.

3.- Unibertsitateak ebaluazioen emaitzak argitara emango ditu Gizarte-Kontseiluaren bitartez, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari bidaliko dizkio ebaluaturiko biurtekoa amaitu eta hurrengo zortzi hilabeteen barruan. Ebaluazioak kontuan hartuko dira Unibertsitate-Planean jasotako eta programa-kontratuaren kontura finantzaturako ikerketa-programetarako finantzabideei eutsi, baimena eman eta uko egiterakoan.

#### LAUGARREN KAPITULUA FINANTZAZIOA

#### LEHENENGO SEKZIOA DIRULAGUNTZA PUBLIKOA

#### **29. artikulua.**– Aurrekontu-dotazioa.

1.- Gobernuak erabakiko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, unibertsitateari entzun ondoren, aurrekontu-urte bakoitzean

errollo (I+D) de empresas, las sociedades científicas o cuantas entidades tengan como objeto realizar actividades de innovación. Dicha interacción puede adoptar la forma de uso de infraestructuras comunes, intercambio de personal, proyectos conjuntos de investigación, o cualesquiera otras que sean adecuadas para los objetivos a alcanzar.

2.- La Universidad, con arreglo a su normativa interna, podrá concertar proyectos o convenios de investigación con otras personas físicas o jurídicas.

La Universidad determinará los criterios de autorización de la investigación concertada procurando dar prioridad a la incorporación de jóvenes investigadores e investigadoras a la misma, y podrá denegar estas actividades cuando no quede suficientemente garantizado el cumplimiento de las tareas propias, docentes e investigadoras, del departamento o instituto.

3.- Los convenios de investigación concertada deberán ser firmados por quien determinen los Estatutos de la Universidad. Las cantidades que correspondan por la realización de estos convenios se integrarán en el presupuesto de la Universidad.

#### **Artículo 28.**– Evaluación.

1.- Los departamentos e institutos universitarios presentarán anualmente a la Universidad, según lo estipulado en los Estatutos, una memoria de las actividades de investigación realizadas. La memoria se referirá a un año académico y se entregará a la finalización del mismo.

2.- Se evaluarán dichas memorias cada dos años mediante criterios objetivos y por comisiones independientes compuestas íntegramente por miembros de la comunidad científica de la correspondiente área de conocimiento, ajenos a la propia Universidad y a los centros con los que el departamento o instituto mantenga o haya mantenido vínculos o relaciones de colaboración.

3.- La Universidad hará público a través del Consejo Social y remitirá al Departamento de Educación, Universidades e Investigación el resultado de las evaluaciones en los ocho meses siguientes a la finalización de cada bienio evaluado. Las evaluaciones serán consideradas a efectos de mantener, conceder y denegar recursos financieros para los programas de investigación recogidos en el Plan Universitario y financiados con cargo a los contratos-programa.

#### CAPÍTULO CUARTO FINANCIACIÓN

#### SECCIÓN PRIMERA SUBVENCIÓN PÚBLICA

#### **Artículo 29.**– Dotación presupuestaria.

1.- La subvención a la Universidad será acordada por el Gobierno, para cada ejercicio presupuestario, a propuesta del Consejo o Consejera de Educación, Uni-

unibertsitateari eman beharreko dirulaguntza, eta dotazio hori Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren lege-egitasmoan jasoko da eztabaidatzeko eta onartzeko.

2.- Unibertsitateari dagokion aurrekontu-dotazioa hiru kontzeptutan banatuko da argi eta garbi:

- Dirulaguntza arrunta, orokorra, irakaskuntza eta ikerketa arruntaren ohiko jarduera bermatzeko xedez.

- Programa-kontratuak burutzeko kredituak, Unibertsitate-Planean jasotako helburu zehatzen arabera.

- Inbertsiorako eta azpiegiturarako urte anitzeko programa hornitzeko kredituak.

**30. artikulua.**- Dirulaguntza arrunta.

1.- Titulazio bakoitzeko lehen kurtsuan sartu berriak diren ikasleen kopuruaren eta titulazio bakoitzeko ikasleko batez besteko kostuaren arabera kalkulatu da dirulaguntza arrunta.

2.- Titulazio bakoitzerako ikasleko dirulaguntza Aurrekontu Orokorrekin batera doan unibertsitateari buruzko urteko txostenean jasoko da, eta honako parametro hauek kontuan izanda zehaztuko da:

a) Irakaskuntza ezberdinen esperimentaltasun-mailari dagokion esperimentaltasun-koefizientea.

b) Lehen kurtsoko ikasle-kopurua eta kopuru horren proiektzioa ikasketak amaitzeko aurreikusitako urteetarako. Horretarako, beharrezkoak diren zuzenketak egingo dira, titulazio eta ziklo bakoitzerako errepikatze eta ikasketak bertan behera uzteko ezarritako koefizienteen arabera.

c) Taldeko ikasle-kopurua, matrikulatutako kreditu-kopurua ikasleko, irakasleen irakas-zama, irakasleen banaketa kategorian ezberdinetan, eta irakasleen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen arteko harremanak.

d) Irakasleen batez besteko banakako kostua.

e) Administrazio eta zerbitzuetako langileen batez besteko banakako kostua.

3.- Artikulu honetan ezarritako batez besteko kostua kalkulatzeko prozedura erregelamenduz zehaztuko da unibertsitatearen eta Gizarte-Kontseiluaren iritzia entzun eta Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoaren Koordinazio-Kontseiluak txostena egin eta gero. Aurreko idatz-zatian adierazitako parametro bakoitzari ezarri beharreko balioa zehaztuko du batez ere. Dena den, ateratzen den batez besteko kostua zuzentzeko beste indize batzuk ezar ditzake, bereziki irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.

versidades e Investigación, previa audiencia de la Universidad, e incluida en el proyecto de ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, para su debate y aprobación.

2.- La dotación presupuestaria correspondiente a la Universidad se desglosará en tres conceptos suficientemente diferenciados:

- Subvención ordinaria, que tendrá carácter global, con la finalidad de asegurar el normal funcionamiento de la actividad docente y de investigación de carácter ordinario.

- Créditos para la ejecución de contratos-programa en función de objetivos específicos contemplados en el Plan Universitario.

- Créditos precisos para dotar el programa plurianual de inversión e infraestructuras.

**Artículo 30.**- La subvención ordinaria.

1.- La subvención ordinaria se calculará en función del número de alumnos de nuevo ingreso en el primer curso de cada una de las titulaciones y del coste medio por alumno para cada titulación.

2.- La subvención por alumno para cada titulación, que figurará cada año en la memoria referida a la Universidad que se acompañe a los Presupuestos Generales, se determinará en función de los siguientes parámetros:

a) Coeficiente de experimentalidad, correspondiente al nivel de experimentalidad de las distintas enseñanzas.

b) Número de alumnos y alumnas en primer curso y su proyección en el número de años previstos para la finalización de los estudios, aplicándose las correcciones precisas en función de los coeficientes de repetición y de abandono de estudios que se establezcan para cada titulación y ciclo.

c) Número de alumnos y alumnas por grupo, número de créditos matriculados por alumno, carga docente del profesorado, distribución del profesorado en las distintas categorías, y relación entre personal docente y personal de administración y servicios.

d) Coste medio unitario del personal docente.

e) Coste medio unitario del personal de administración y servicios.

3.- Reglamentariamente se determinará el procedimiento de cálculo del coste medio establecido en el presente artículo, previa audiencia de la Universidad y del Consejo Social e informe del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria. En particular, establecerá el valor a asignar a cada uno de los parámetros señalados en el apartado anterior, pudiendo fijar otros índices correctores del coste medio obtenido, en particular, en concepto de mejora de la calidad docente.

**31. artikulua.**– Programa-kontratuak.

1.– Programa-kontratuek Unibertsitate-Planean jasotako programak eta ekintzak finantzatuko dituzte. Sortzen diren ikastetxe eta titulazio berriak programa-kontratuen kontura finantzatuko dira, guztiz ezarri arte. Gero, dirulaguntza arruntaren kontura finantzatuko dira.

2.– Programa-kontratuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, Gobernuaren orde, eta unibertsitatearen errektoreak izenpetuko dituzte, 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.– Programa-kontratu ezberdinen kostuak, aurreikusitako finantzazio-iturriak eta programaren indarraldirako aurreikusitako dirusarrera-kopurua balioztatuta, dirulaguntzak emango dira gastu arrunten eta kapital-gastuen kontu-atalak bereiziz. Kontratueta honako hauek zehaztuko dira: programa bakoitzaren gaietarako izendatutako fondoak eta, hala badagokio, lansari gisa izenda daitezkeen diru-kopuruak programen helburua ikerketa edo hezkuntza-berrikuntza denean; ebaluazio instituzionalaren irizpideak; indarraldia; suntsiarazteko arrazoiak, eta ez betetzeagatiko erantzukizunak, transferitutako fondoan itzulketa barne.

4.– Programa-kontratuetatik datozen konpromiso finantzarioak Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen onarpenaren menpe egongo dira. Urtesari bakoitza dagokion aurrekontuan jasoko da.

5.– Programa-kontratuek administrazio-izaera izango dute eta dirulaguntzen kontura finantzatuko dira. Urtero berraztertuko dira lortutako helburuen arabera, eta, hala badagokio, aurreikusitako helburuak bete ez badira, deuseztatu ahal izango dira.

**32. artikulua.**– Inbertsiorako eta azpiegituretarako urte anitzeko programa.

1.– Inbertsiorako eta azpiegituretarako urte anitzeko programaren helburua azpiegitura materiala gartzea, hobetzea eta egokitzea da.

Programak honako hauek zeinkatu eta arrazoitu beharko ditu: obren beharra, inbertsioa jasoko duen campusa, inbertsioaren zenbatekoa eta aldiaren araberako sailkaketa eta beharrezkoak diren gainontzeko ezaugarriak.

2.– Inbertsiorako eta azpiegituretarako urte anitzeko programa unibertsitateak eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bitartez, Gobernuak hitzartuko dute. Programa hori, unibertsitatearen aurrekontu-egitasmoari erantsirik, Gizarte-Kontseiluak onartuko du.

3.– Unibertsitateari dagokio programa burutzea Herri-Administrazioen Kontratuen Legean ezarritakoaren menpe. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak

**Artículo 31.**– Los contratos-programa.

1.– Los contratos-programa financiarán los programas incluidos en el Plan Universitario, sin que esto suponga el menoscabo de la autonomía universitaria. La creación de nuevos centros y titulaciones se financiará con cargo a contratos-programa hasta completar su implantación, momento en que pasarán a financiarse con cargo a la subvención ordinaria.

2.– Los contratos-programa serán suscritos entre el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación en representación del Gobierno y el Rector o Rectora de la Universidad, en relación con las previsiones contenidas en el artículo 11.

3.– Valorados los costes de los diversos contratos-programa, así como las fuentes de financiación previstas y el volumen previsible de ingresos para el periodo de vigencia del programa, se subvencionará distinguiendo las partidas de gasto corriente y de gastos de capital. Los contratos determinarán: la asignación de fondos a los distintos conceptos de cada programa y, en su caso, las cantidades que puedan asignarse como remuneración cuando su objeto sea la investigación o la innovación educativa; los criterios de evaluación institucional; el periodo de vigencia; las causas de resolución, y las responsabilidades por incumplimiento, incluida la devolución de los fondos transferidos.

4.– Los compromisos financieros derivados de los contratos-programa estarán sujetos a la aprobación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma. Cada anualidad se incluirá en el presupuesto correspondiente.

5.– Los contratos-programa tendrán naturaleza administrativa y carácter subvencional. Serán revisados anualmente en función del logro de sus objetivos y, en su caso, cuando no se hayan alcanzado los objetivos previstos, podrán ser rescindidos.

**Artículo 32.**– Programa plurianual de inversión e infraestructuras.

1.– El programa plurianual de inversión e infraestructuras tiene por objeto el desarrollo, mejora y acondicionamiento de la infraestructura material.

El programa habrá de identificar y motivar la necesidad de las obras, el campus en que se llevará a efecto la inversión, su cuantía económica, periodificación de la inversión y demás características precisas.

2.– La Universidad y el Gobierno, a través del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, acordarán el programa plurianual de inversión e infraestructuras que, incorporado al proyecto de presupuesto de la Universidad, será aprobado por el Consejo Social.

3.– Corresponde a la Universidad la ejecución del programa con sujeción a lo establecido en la legislación de contratos de las Administraciones públicas. El De-

programa nola gauzaten den ikuskatuko du, eta bete-zeko egoki irizten dien neurriak hartu ahalko ditu.

BIGARREN SEKZIOA  
TASA AKADEMIKOAK

**33. artikulua.**– Herri-prezioak.

1.– Unibertsitatearen Erreformatarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 54.3 b) artikuluan aipatutako tasa akademikoak eta gainontzeko eskubi-deak herri-preziotzat joko dira eta tasa eta herri-prezioei buruzko legezko antolamenduaren menpe egongo dira.

2.– Zenbatekoa honela ezarri edo aldatuko da:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua-ren aginduz, lege honen 17. artikuluko a) eta b) letretan adierazitako tituluak lortzeko bide ematen duten irakaskuntzen kasuan, betiere Unibertsitate-Kontseiluak ezarritako muga barruan; baita ere titulu ofizialak emateari, ikasketa-konbalidazioei, edozein egiazta-pen-motari, konpultsei eta idazkaritza-lanei dagozkien prezioen kasuan ere.

b) Gizarte-Kontseiluaren erabakiz unibertsitateak bere dituen eta 17. artikuluko b) eta c) letretan aurreikusita dauden titulu eta diplomei dagokienez.

**34. artikulua.**– Zenbatekoak zehaztea.

Irakaskuntzari dagozkion tasa akademikoak zehazteko, oinarrizko irizpide hauek erabiliko dira:

a) Irakasgai bakoitzari esleitutako kreditu-kopurua, dagokion esperimantalasun-mailaren barruan eta zenbatgarren matrikula den kontuan hartuta (lehenengoa, bigarrena, hirugarrena...).

b) Ikasturte osoko edo irakasgaiko matrikula, edo, hala badagokio, kreditu solteak.

c) Irakasgaia ardatzekoa, derrigorrezkoa edo aukerakoa den.

d) Irakasgaiaren iraupena urtebetekoa, lauhilekoa edo hiruhilekoa den.

e) Zikloa.

**35. artikulua.**– Matrikula-salbuespenak.

1.– Kide ugariko familia ohorezko nahiz bigarren mailakoetako ikasleek ez dute tasa akademikorik ordaindu beharko.

2.– Kide ugariko lehen mailako familia duten ikasleek matrikularen tasa akademikoen ehuneko 50a baino ez dute ordaindu beharko.

partamento de Educación, Universidades e Investigación supervisará la ejecución del programa, pudiendo acordar las medidas que estime precisas para su cumplimiento.

SECCIÓN SEGUNDA  
TASAS ACADÉMICAS

**Artículo 33.**– Precios públicos.

1.– Las tasas académicas y demás derechos a que se refiere el artículo 54.3 b) de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, tendrán la consideración de precios públicos y se registrarán por lo establecido en el ordenamiento legal sobre tasas y precios públicos.

2.– La fijación de la cuantía, así como su modificación, será establecida por:

a) Orden del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación cuando se trate de enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos a que se refiere la letra a) del artículo 17 de la presente ley, dentro de los límites que establece el Consejo de Universidades; así como los precios por expedición de títulos oficiales, convalidaciones de estudios, certificaciones de cualquier tipo, compulsas y trabajos de secretaría.

b) Acuerdo del Consejo Social en relación a los títulos y diplomas propios de la Universidad previstos en las letras b) y c) del citado artículo 17.

**Artículo 34.**– Determinación de las cuantías.

Para la determinación de las tasas académicas correspondientes a enseñanza se adoptarán los siguientes criterios básicos:

a) Número de créditos asignados a cada materia, dentro del grado de experimentalidad correspondiente y según se trate de primera, segunda, tercera o sucesivas matrículas.

b) Matrícula por curso completo o por materias, o, en su caso, créditos sueltos.

c) Carácter troncal, obligatorio u optativo de la materia.

d) Carácter anual, cuatrimestral o trimestral de la materia.

e) Ciclo.

**Artículo 35.**– Exenciones de matrícula.

1.– Disfrutarán de exención total del pago de las tasas académicas los alumnos y alumnas miembros de familias numerosas de honor y de segunda categoría.

2.– Disfrutarán de exención del 50 por ciento del pago de las tasas académicas por matrícula los alumnos y alumnas miembros de familias numerosas de primera categoría.

3.- Tasak onartzeko aginduan edo akordioan bestelako salbuespen osoak edo partzialak ezar daitezke, betiere arrazoirik gabeko bereizkeria ez badakarte beren baitan.

#### BOSGARREN KAPITULUA ADMINISTRAZIO-ERREGIMENA

**36. artikulua.** - Aurrekontu- eta kontabilitate-erregimena.

1.- Gobernuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak proposatutako dekretuaren bidez, Unibertsitatearen Erreformatarako abuztuaren 25eko 11/1983 Legean aurreikusitako unibertsitatearen aurrekontu- eta kontabilitate-erregimena onartuko du, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ezarritako irizpide berdinak erabiliz.

2.- Transferentzien erregimena Unibertsitatearen Erreformatarako Legearen 55. artikuluan zehaztutakoaren menpe egongo da.

**37. artikulua.** - Kontratazio-erregimen orokorra.

1.- Unibertsitatea, bai eta horren jardurte-mailako erakundeak ere, Herri-Administrazioen Kontratuen Legean ezarritakoen menpe egongo dira.

2.- Unibertsitateek negoziazio bidezko jardunbidez eskuratu ahal izango dituzte euren ikerketa-programak garatzeko beharrezkoak diren ekipamendu-ondasunak, Gizarte-Kontseiluak horretarako baimena eman eta gero.

**38. artikulua.** - Unibertsitatearen Erreformatarako Legearen babespeko kontratuak.

1.- Unibertsitatearen Erreformatarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 11. artikuluaen babespean erakunde publiko edo pribatuekin izenpetutako kontratuak unibertsitatearen estatutuetan zehaztutakoaren arabera egingo dira.

2.- Gerta litezkeen diru-ordainak unibertsitateko dirusarreratzat joko dira eta dirusarreraren aurrekontuan azaldu beharko dira Unibertsitatearen Erreformatarako Legearen 54.3. artikuluan eta unibertsitatearen estatutuetan ezarritakoaren ildotik.

3.- Aurreko idatz-zatian zehaztutakoak ez die kalterik egingo irakasleek edo ikertzaileek oinarritzko legediaren arabera kontratu horien kontura jaso litzaketen lansari osagarriei.

4.- Unibertsitateak kontratuak ez betetzeaz erantzungo du, erantzuleen aurka jotzeko eta bidezko diziplinazko ekintzak hartzeko eskubideari kalterik egin gabe.

**39. artikulua.** - Nahitaezko desjabetzea eta herri-onura.

3.- En la orden o acuerdo de aprobación de las tasas podrán establecerse otras exenciones totales o parciales, siempre que no impliquen una discriminación arbitraria.

#### CAPÍTULO QUINTO RÉGIMEN ADMINISTRATIVO

**Artículo 36.** - Régimen presupuestario y contable.

1.- El Gobierno, mediante decreto a propuesta conjunta de los Consejeros o Consejeras de Educación, Universidades e Investigación y de Hacienda y Administración Pública, adaptará el régimen presupuestario y contable de la Universidad previsto en la Ley 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, a criterios comunes a los establecidos para la Administración General de la Comunidad Autónoma.

2.- El régimen de transferencias se acomodará a lo previsto en el artículo 55 de la ley de Reforma Universitaria.

**Artículo 37.** - Régimen general de la contratación.

1.- La Universidad, así como sus entes instrumentales, estará sujeta a lo establecido en cada caso en la legislación de contratos de las Administraciones públicas.

2.- Las Universidades podrán adquirir por el procedimiento negociado los bienes de equipo necesarios para el desarrollo de sus programas de investigación, previo acuerdo del Consejo Social.

**Artículo 38.** - Contratos al amparo de la ley de Reforma Universitaria.

1.- Los contratos con entidades públicas o privadas, suscritos al amparo del artículo 11 de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, serán autorizados conforme a lo previsto en los Estatutos de la Universidad.

2.- Las contraprestaciones económicas que resulten tendrán la consideración de ingreso público de la Universidad y habrán de figurar en su presupuesto de ingresos a tenor de lo establecido en el artículo 54.3 de la ley de Reforma Universitaria y en los Estatutos de la Universidad.

3.- Lo dispuesto en el apartado anterior se entiende sin perjuicio de las retribuciones complementarias que puedan percibir los profesores o profesoras e investigadores o investigadoras con cargo a dichos contratos en los términos de la legislación básica en la materia.

4.- La Universidad responde del incumplimiento de los contratos, sin perjuicio de la acción de regreso contra los o las responsables y las acciones disciplinarias a que hubiere lugar.

**Artículo 39.** - Expropiación forzosa y utilidad pública.

1.- Unibertsitatea onuraduntzat joko da nahitaezko desjabetzeari buruzko legediaren ondorioetarako.

2.- Unibertsitateko zerbitzuak eta ekipamenduak jartzeko, zabaltzeko eta hobetzeko obra-proiektuak herri-onurakotzat joko dira ondasunen nahitaezko desjabetzearen eta jartzeko beharrezkoak diren eskubideen ondorioetarako.

3.- Obra-proiektua Gobernuak onartu beharko du, eta onarpen horrek bere baitan ekarriko du herri-onurakotzat jotzea eta okupazio-beharrak adieraztea. Nolanahi ere, ondasun, eskubideen eta horien jabeen zerrenda osoa jaso beharko duen onarpen-akordio hori jenduraren agertuko da hamabost egunetan, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta, gutxienez, dagokion lurralde historikoan gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko da.

#### BIGARREN TITULUA UNIBERTSITATE PRIBATUAK

##### **40. artikulua.**- Unibertsitate pribatuak.

1.- Edozein pertsona fisiko edo juridikok sustatu ahal izango du unibertsitate pribatuen aitortpena.

2.- Horretarako, beharrezkoa izango da oinarrizko legedian ezarritako tramiteak eta baldintzak betetzea.

3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bideratuko du espedienteak, eta aitortzeko beharrezkoak diren legezko eskakizunak betetzen diren egiaztatuko du.

4.- Unibertsitate pribatuek berezko nortasun juridikoa izango dute, euren sustatzaileenaz bestelakoa. Ekintzak hasteko baimena eman baino lehen, baldintza hori bete dela egiaztatu beharko da. Unibertsitateak sortzeko behar den berme finantzarioa ezin izango da bostehun milioi pezetatik beherakoa izan. Sustatzailea merkataritza-baltzua bada, berme finantzarioa ordezkatu ahal izango da, betiere eratze-agirian baltzua hasterako kapitala (bostehun milioikoa gutxienez) eta bazkide bakoitzaren partizipazioa agertzen baziren. Hasierra batean baltzuan jarritako kapitala ezingo da guztizkoaren ehuneko 50etik beherakoa izan, eta, nolahi ere, hasierako ekintzak erabakitakoaren arabera burutzeko beste izan beharko du.

##### **41. artikulua.**- Aitorpena.

1.- Unibertsitate pribatuen aitortpena legez egingo da, Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatze-ko Kontseiluak, hala behar izanez gero, txostena egin eta gero.

2.- Aitorpenak bere baitan darama erakundea gizarte-interesekotzat eta herri-onurakotzat jotzea, bai eta nahitaezko desjabetzeari buruzko legediaren ondorioetarako onuraduntzat jotzea ere.

1.- La Universidad tendrá la consideración de beneficiaria a los efectos de la legislación de expropiación forzosa.

2.- Los proyectos de obras para la instalación, ampliación y mejora de los servicios y equipamientos universitarios tendrán la consideración de utilidad pública a los efectos de la expropiación forzosa de los bienes y de los derechos necesarios para su establecimiento.

3.- La aprobación del proyecto de obras, que habrá de ser acordado por el Gobierno, llevará implícita la declaración de utilidad pública y de necesidad de ocupación. El acuerdo aprobatorio, que habrá de incluir en todo caso la relación completa de bienes y derechos y sus titulares, se someterá a información pública por plazo de quince días y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, en el del territorio histórico correspondiente y, al menos, en uno de los diarios de mayor difusión del territorio histórico correspondiente.

#### TÍTULO SEGUNDO DE LAS UNIVERSIDADES PRIVADAS

##### **Artículo 40.**- De las Universidades privadas.

1.- Cualquier persona física o jurídica podrá promover el reconocimiento de Universidades privadas.

2.- Será preciso a tal fin el cumplimiento de los trámites y requisitos establecidos en la legislación básica.

3.- El expediente será instruido por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, que habrá de verificar que se reúnen los requisitos legales exigidos para el reconocimiento.

4.- Las Universidades privadas tendrán personalidad jurídica propia, distinta de la de sus promotores. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse con carácter previo a la autorización para el inicio de actividades. Para la creación de la Universidad se requerirá una garantía financiera que no podrá ser inferior a quinientos millones de pesetas. En el caso de que el promotor sea una sociedad mercantil, la garantía financiera se podrá sustituir siempre que en la escritura de constitución figurara el capital social inicial, no siendo éste inferior a quinientos millones de pesetas, y la participación que ostente cada socio. El capital social inicialmente desembolsado no podrá ser inferior al 50 por ciento del total, y en todo caso el necesario para llevar a cabo las actividades iniciales en los términos que se acuerden.

##### **Artículo 41.**- Reconocimiento.

1.- El reconocimiento de Universidades privadas se hará mediante ley, previo informe, en su caso, del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria.

2.- El reconocimiento llevará aparejada su consideración como entidad de interés social y utilidad pública y su condición de beneficiaria a los efectos de la legislación de expropiación forzosa.



**42. artikulua.**– Ekintzak hastea.

Ekintzen hasiera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aginduz erabakiko da aitorten-legea indarrean jarri eta gehienez sei hilabeteko epean, betiere epe horretan titulu ofizialak homologatu eta gainontzeko legezko eskakizunak bete direla egiaztatu bada.

**43. artikulua.**– Kontrola.

1.– Unibertsitate pribatuek bete beharreko arauak eta aitorpenerako bere gain hartutako konpromisoak betetzen dituzten ikuskatuko du aldiari-aldiari Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Ekintzak hasi eta gero legezko baldintzaren bat edo hartutako konpromisoren bat betetzen ez dela egiaztatzen bada, sailak hiru hilabeteko epea emango du arau kontrakoak zuzentzeko. Epe horretan zuzendu ez badira, unibertsitateari, Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoak Koordinatzeko Kontseiluari eta bidezkoak diren gainontzeko erakundeei entzun eta gero, sailak ekintzak geldiarazi egingo ditu, guztiz edo zati batean, eta horren berri emango dio Legebiltzarrari, hiru hilabeteko epean, hala badagokio, aitortpena indargabe dezan.

2.– Honako hauek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurretiazko baimena behar duten ekintzak dira:

a) Pertsona fisiko edo juridikoen unibertsitate pribatuen gainean dituzten titularitatea guztiz edo zati batean eskualdatzea edo uztea dakarten egintza edo negozio juridikoak, baldin eta kostubidez edo doan, inter vivos edo mortis causa, erakunde titularren administrazio-batzordeko kide izateko eskubidea ematen badute.

b) Baltzu-kapitala ordezkatzeko duten jabe-agirien zerga-egintzak.

c) Obligazioen edo antzeko jabe-agirien jaulkipena.

Idatz-zati honetan unibertsitate pribatuentzat ezarritakoa unibertsitate publikoei atxikitako ikastetxei ere aplikatzekoa da.

3.– Aurreko idatz-zatian zehaztutakoa betetzen ez bada, aitorten edo atxikipenaren funtsezko baldintzak aldatu egingo dira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak arau-hausteagatik bideratu beharreko espediente bideratuko du, eta, unibertsitateari entzun ondoren eta Euskadiko Unibertsitate-Kontseiluak txostena egin eta gero, ekintzak geldiaraz ditzake, eta, hala badagokio, horren berri emango dio Legebiltzarrari aitortpena indargabe dezan. Hori guztia hala bada ere, aipaturiko ez-betetze horien ondorioz etor litezkeen erantzukizun guztiak gauzatu ahal izango dira, diren arlokoak direla (administraziokoak, merkataritzakoak, arlo zibil edo penalekoak).

**Artículo 42.**– Inicio de actividades.

El inicio de actividades se acordará por orden del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación en el plazo máximo de seis meses desde la entrada en vigor de la ley de reconocimiento, siempre que se hubiera obtenido dentro de dicho plazo la homologación de sus títulos oficiales y se hubiera acreditado el cumplimiento de los demás requisitos legales.

**Artículo 43.**– Control.

1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación inspeccionará periódicamente el cumplimiento por las Universidades privadas de las normas que les sean de aplicación y el cumplimiento de los compromisos adquiridos para el reconocimiento.

Si con posterioridad al inicio de actividades se comprobara algún tipo de incumplimiento de las condiciones legales y los compromisos adquiridos, el Departamento requerirá su regularización en el plazo máximo de tres meses. Transcurrido el mismo sin que se proceda a la regularización, previa audiencia de la Universidad, del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria y de los demás organismos que proceda, el Departamento suspenderá las actividades, total o parcialmente, y lo comunicará al Parlamento a efectos de la posible revocación del reconocimiento, en el plazo de tres meses.

2.– Requerirán autorización previa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación:

a) Los actos o negocios jurídicos que impliquen la transmisión o cesión, total o parcial, cuando implique derecho a ocupar puesto en el consejo de administración de la entidad titular, a título oneroso o gratuito, inter vivos o mortis causa, de la titularidad que las personas físicas o jurídicas ostenten sobre las Universidades privadas.

b) Los actos de gravamen de los títulos representativos del capital social.

c) La emisión de obligaciones o títulos similares.

Lo dispuesto en este apartado para las Universidades privadas será también de aplicación a los centros adscritos a las Universidades públicas.

3.– La infracción de lo previsto en el apartado anterior supondrá una modificación en las condiciones esenciales del reconocimiento o adscripción. El Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación instruirá el expediente oportuno de infracción, pudiendo acordar, previa audiencia de la Universidad e informe del Consejo Vasco de Universidades, la suspensión de actividades, dando cuenta, en su caso, al Parlamento a efectos de la revocación del reconocimiento. Todo ello sin perjuicio de que se puedan substanciar las responsabilidades administrativas, civiles, mercantiles, penales o de otro tipo que se deriven de los referidos incumplimientos.

4.- Titularitatea guztiz edo zati batean aldatzeak ez du inoiz ere aitorten-baldintzen eta hartutako konpromisoen aldaketarik ekarriko.

**44. artikulua.**- Ikastetxe eta titulazioak aitortzea eta ezabatzea.

1.- Unibertsitate pribatuek bete egin beharko dituzte antolamendu juridikoak, egiturari dagokionez, ikastetxe, titulazio eta mailetarako eskatzen dituen gutxienezko baldintzak. Nolanahi ere, egitura hori aldatu ahal izango da ikastetxe berriak aitortuz eta ezabatutako titulazioak ordezkatzan dituzten titulazio berriak homologatuz.

Ezingo da inoiz ere titulazio jakin bat ezabatu, harik eta titulazio horretan matrikulatutako ikasleek ikasketak amaitu arte.

2.- Ikastetxeak aitortzeko edo ezabatzeko, bai eta titulazioak ezabatzeko ere, beharrezkoa izango da aurretik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena. Baimenak emateko ezinbestekoa da aurreko idatz-zatian ezarritakoa bermatzea eta, hala egokituz gero, indarrean dagoen legediak ezarritako gainontzeko baldintzak betetzea.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**- Unibertsitate pribatuak.

1.- Unibertsitate pribatuei zuzenean ezarriko zaie lege honen atariko tituluan jasotakoa (4.5, 4.6 eta 5. artikuluan ezarritakoa salbu) eta 15.1, 18, 19, 20 eta 21. artikuluetan jasotakoa.

2.- Lege hau indarrean jarri aurretik indarrean zeuden unibertsitate pribatuek lege honen 41.2 artikuluan jasotako eskubideak, onurak eta izaera izango dituzte, aurretik aitortuta zeuzkaten gainontzeko eskubideei kalterik egin gabe.

3.- Lege hau Eliza Katolikoaren unibertsitateei aplikatzeko, Espainiako Estatuaren eta Vatikanoren arteko akordioetan xedatutakoari jarraituko zaio.

**Bigarrena.**- Izendapenen bakarrengo erabilera.

1.- Unibertsitate gisa sortu edo aintzakitatzat aitortutakoak baino ez dira unibertsitateak, eta, horiek bestek ezin dute unibertsitate-izena erabili Autonomia Erkidegoan. Beraz, unibertsitate publiko edo pribatuen barne dauden ikastetxeek edo unibertsitate publikoei atxikitakoek bestek ezingo dute izendapen hori edo antzekorik erabili, ez eta izendapen horretatik eratorritako hitzik ere.

2.- Aurreko idatz-zatian zehaztutakoa eta, orokorrean, unibertsitateak eta Unibertsitate-Ikastetxeak Sortzeko eta Aitortzeko apirilaren 12ko 557/1991 Errege-Dekretuaren 2. artikuluan zehaztutakoa ez betetzea oso arau-hauste larritzat joko da Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Babesteko uztailaren 19ko 26/1984 Le-

4.- Los cambios totales o parciales de titularidad no podrán suponer en ningún caso modificación en las condiciones de reconocimiento y en el cumplimiento de los compromisos adquiridos.

**Artículo 44.**- Reconocimiento y supresión de centros y titulaciones.

1.- Las Universidades privadas habrán de cumplir en todo momento las condiciones mínimas que en cuanto a estructura en centros, titulaciones y niveles requiera el ordenamiento jurídico, sin perjuicio de que pueda modificarse dicha estructura mediante el reconocimiento de nuevos centros y homologación de nuevas titulaciones que sustituyan a las que fueran suprimidas.

En ningún caso podrán suprimirse titulaciones en tanto no hayan finalizado sus estudios los alumnos y alumnas que estuvieran matriculados.

2.- El reconocimiento o supresión de centros, así como la supresión de titulaciones, requerirá la previa autorización del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Las autorizaciones se otorgarán únicamente si queda garantizado lo establecido en el apartado anterior y el cumplimiento de los demás requisitos que, en su caso, establezca la legislación vigente.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**- De las Universidades privadas.

1.- Lo previsto en el Título Preliminar, excepto lo establecido en los artículos 4.5, 4.6 y 5, así como en los artículos 15.1, 18, 19, 20 y 21 de la presente ley, será de aplicación directa a las Universidades privadas.

2.- Las Universidades privadas en funcionamiento a la entrada en vigor de la presente ley ostentarán los derechos, beneficios y consideración previstos en el artículo 41.2 de la presente ley, sin perjuicio de los demás derechos adquiridos que tuvieran reconocidos.

3.- La aplicación de esta ley a las Universidades de la Iglesia Católica se ajustará a lo dispuesto en los acuerdos entre el Estado español y la Santa Sede.

**Segunda.**- Del uso exclusivo de las denominaciones.

1.- Sólo son Universidades y sólo podrán utilizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma tal denominación las entidades que hayan sido creadas o reconocidas como tales. No podrá utilizarse esta denominación o similares, o palabras derivadas, salvo en el caso de centros integrados en Universidades públicas o privadas o de centros adscritos a Universidades públicas.

2.- La infracción de lo previsto en el apartado anterior y, en general, la infracción de lo previsto en el artículo 2 del Real Decreto 557/1991, de 12 de abril, de Creación y Reconocimiento de Universidades y Centros Universitarios, se considerará falta muy grave a los efectos previstos en el artículo 36 de la Ley 26/1984, de 19

gearen 36. artikuluan ezarritakoen ondorioetarako, Bezeroaren Araudiari buruzko azaroaren 18ko 10/1981 Legearen azken xedapenean berariaz zehaztutakoaren arabera.

**Hirugarrena.**– Atzerriko unibertsitateetan homologagarriak diren irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuak.

1.– Unibertsitateetatik eta unibertsitatei atxikitako ikastetxeetatik kanpoko ikastegi pribatuetan tituluak lortzeko edo beste herrialdeetan edo atzerriko unibertsitateetan indarrean dauden hezkuntza-sistemen arabera tituluak konbalidatzeko edo homologatzeko emandako irakaskuntzek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimena beharko dute, Estatuko legedian atzerriko ikastetxeak ezartzeko zehaztutako baldintza berdinekin.

2.– Baimena eman aurretik honako hauek egiaztatu beharko dira:

a) Estatuko oinarrizko legeetan ezarritako baldintzak betetzen diren;

b) ikastetxe horietan ikasten dutenek dagokion atzerriko ikastetxe edo unibertsitatean ikasketa horiek egiteko behar diren baldintzak betetzen dituzten;

c) tituluak eman, konbalidatu edo homologatzen dituen ikastetxe edo unibertsitateak baliabide eta irakasleei dagokienez eskatzen dituen baldintzak ikastetxeak betetzen dituen.

3.– Xedapen honetan aipatutako ikastetxeek, lege hau indarrean jartzen denetik hasita, gehienez urtebeteko epea izango dute aurreko baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Baimena lortzen ez duten bitartean, ezingo dute ikasleak bereganatzeko publizitatean edo kanpainetan atzerriko tituluak edo titulu horien homologazio edo konbalidazioa aipatu.

4.– Aurreko paragrafoan zehaztutakoa betetzen ez bada, ikastetxea itxi egingo da, baldin eta arau-haustez ohartarazi ondoren, ematen dituen tituluen homologazioa edo konbalidazioa publizitatean edo inprimakietan aipatzen jarraitzen badu.

**Laugarrena.**– Unibertsitateko funtzio publikoa.

Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzupeko langileei euskal funtzio publikoari buruzko xedapenak ezarriko zaizkio, Unibertsitatearen Erreformatarako Legean ezarritakoei kalterik egin gabe.

**Bosgarrena.**– Estatuak unibertsitateak sortzea eta aitortzea.

1.– Eusko Jaurlaritzari dagokio Unibertsitatearen Erreformatarako abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 5.1 b) eta 58.1 b) artikuluetan aipatutako akordioak onartzea.

de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, por remisión expresa de la disposición final primera de la Ley del Parlamento Vasco 10/1981, de 18 de noviembre, del Estatuto del Consumidor.

**Tercera.**– Centros privados que impartan enseñanzas homologables por Universidades extranjeras.

1.– Las enseñanzas en centros privados distintos a las Universidades y centros adscritos a las mismas, que habiliten para la obtención de títulos o su convalidación u homologación conforme a sistemas educativos vigentes en otros países o Universidades extranjeras, habrán de ser autorizadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en iguales términos que lo dispuesto para el establecimiento de centros extranjeros en la legislación estatal.

2.– La autorización sólo se otorgará una vez se acredite:

a) cumplimiento de los requisitos establecidos en la legislación básica estatal;

b) que quienes cursen estudios en dichos centros reúnan las condiciones para cursarlos en el correspondiente centro o Universidad extranjera;

c) que el centro reúna las condiciones exigidas en cuanto a medios y profesorado por el centro o Universidad que expida, convalide u homologue el centro.

3.– Los centros a que se refiere la presente disposición acreditarán el cumplimiento de los anteriores requisitos en el plazo máximo de un año desde la entrada en vigor de la presente ley.

En tanto no obtengan la autorización, no podrán llevar a cabo publicidad ni campaña alguna de captación de estudiantes que incluya mención a títulos extranjeros o a su homologación o convalidación.

4.– La infracción de lo previsto en el párrafo anterior conllevará el cierre del centro cuando, advertido de la infracción, prosiguiera sus actividades haciendo mención en su publicidad o sus impresos a la homologación o convalidación de los títulos que imparte.

**Cuarta.**– Función pública universitaria.

Son de aplicación al personal al servicio de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea las disposiciones sobre función pública, sin perjuicio de las previsiones contenidas en la ley de Reforma Universitaria.

**Quinta.**– Creación y reconocimiento de Universidades por el Estado

1.– Corresponde al Gobierno Vasco adoptar los acuerdos a que se refieren los artículos 5.1 b) y 58.1 b) de la Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria.

2.- Unibertsitate publikoei dagokienez, onepena emateko ezinbestekoa izango da Euskadiko Unibertsitate-Planean Estatuak sortzea aurreikusitakoa izana.

**Seigarrena.**- Unibertsitate publikoei atxikitako ikastetxeetako ikasleen tasak.

Unibertsitate publikoei atxikitako ikastetxe edo institutuetakoko ikasleek atxikipen-hitzarmenaren arabera dagokion diru-kopurua ordainduko diete unibertsitatei ikasketa-espedientea eta ebaluazio-proba direla-eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak onartzen duen tasa eta herri-prezioen aginduan zehaztutakoari jarraiki.

**Zazpigarrena.**- Esperimentaltasun-koefizientea.

Titulazio ofizialen esperimentaltasun-koefizienteak dekretu bidez zehaztuko dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta eta unibertsitateak txostena egin ondoren.

**Zortzigarrena.**- Euskadiko zientzia- eta teknologia-planetikiko koordinazioa.

Unibertsitateak indarrean dagoen 1997-2000 Zientzi eta Teknologia Planaren eta ondorengo planen esparruan jardungo du. Plan horren eremuan ikerketa-programak eta sustapen-neurriak bultzatu eta koordinatuko dira unibertsitate, enpresa, teknologi zentroen eta Euskadiko Teknologia Sareko beste erakunde batzuen artean hitzartutako ikerketaren arloan.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**- Erregelamendu bidezko garapena.

Ahalmena ematen zaio Gobernuari lege hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduak egiteko.

**Bigarrena.**- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak lege honetan ezarritakoari egokitzea.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, urtebeteko epean, lege honetan zehaztutakoari egokituko dizkio bere estatutuak. Nolanahi ere, legea berehala aplikatuko da estatutuen aurka doan guztian.

**Hirugarrena.**- Xedapen orokorrak argitaratzea.

Lege hau argitaratzen denetik hasi eta gehienez hiru hilabeteko epean, Unibertsitateko idazkari nagusiak xedapen horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko ditu.

Epe hori amaitu eta gero ez dute inolako indarrik izango, harik eta argitaratzen diren arte.

**Laugarrena.**- Unibertsitate pribatuak aitortzeko berme finantzarioa eguneratzea.

2.- En relación a las Universidades públicas, será condición ineludible para poder prestar el acuerdo que la creación por el Estado venga prevista en el Plan Universitario del País Vasco.

**Sexta.**- Tasas de alumnos y alumnas de centros adscritos a las Universidades públicas.

Los alumnos y alumnas de los centros o institutos adscritos a las Universidades públicas abonarán a éstas, en concepto de expediente académico y prueba de evaluación, la cantidad que resulte del convenio de adscripción y según la orden de tasas y precios públicos que se apruebe por el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

**Séptima.**- Coeficiente de experimentalidad.

Por decreto, a propuesta del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación, previo informe de la Universidad, se determinarán los coeficientes de experimentalidad de las distintas titulaciones oficiales.

**Octava.**- Coordinación con los Planes de Ciencia y Tecnología del País Vasco.

La Universidad actuará en el marco del vigente Plan de Ciencia y Tecnología 1997-2000 y planes sucesivos. En el ámbito del citado plan se impulsarán y se coordinarán los programas de investigación y las medidas de fomento en materia de investigación concertada entre las Universidades, las empresas, los centros tecnológicos y otros organismos de la Red Vasca de Tecnología.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**- Desarrollo reglamentario.

Se habilita al Gobierno para dictar los reglamentos requeridos para el desarrollo de la presente ley.

**Segunda.**- Adecuación de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea a lo establecido en la presente ley.

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea adaptará sus Estatutos a lo previsto en la presente ley en el plazo de un año, sin perjuicio de la aplicación inmediata, en todo aquello que los contradiga.

**Tercera.**- Publicación de disposiciones de carácter general.

A partir de la publicación de la presente ley, el Secretario General de la Universidad deberá dar publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco a estas disposiciones en el plazo máximo de tres meses.

Transcurrido dicho plazo carecerán de cualquier eficacia, en tanto no se proceda a su publicación.

**Cuarta.**- Actualización de la garantía financiera para el reconocimiento de Universidades privadas.

Baimena ematen zaio Gobernuari unibertsitate pribatuak aitortzeko 40.4 artikuluan ezarritako berme finantzarioa eguneratzeko.

**Bosgarrena.**– Indarrean jartzea.

1.– Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeiei egunetara jarriko da indarrean.

2.– Lehenengo Unibertsitate-Plana lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean onartuko da. Unibertsitate-Plana onartzen ez den bitartean eta dirulaguntza publikoa zehazteari begira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lege honetan ezarritako printzipio eta irizpideetan oinarritutako behin-behineko sistema bat egin eta onartuko du, programa-kontratuak berehala negoziatu eta izenpetzeko ahalmenari kalterik egin gabe.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko uztailaren 6an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## OSASUN SAILA

### Zk-3287

1351/1998 ERABAKIA, ekainaren 5ekoa, Osakidetza-ko zuzendari nagusiarena, Gipuzkoako Ospitalez Kanpoko Osasun Mentalari atxikitako Kontratazio Mahaia sortzeko dena.

Osakidetza Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20.4 atalean xedatzen denez, Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiak, Administrazio Kontseiluak alde aurretik baimena eman ondoren, behar adina kontratazio-mahai eratuko ditu Ente Publikoko erakundeen tamainaren arabera eta kontratazio-organoari kontratuak esleitzen laguntzeko, Herri Administrazioen Kontratuak maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen 82. atalean adierazitakoa kontuan izanda.

Horregatik, zuzendaritza nagusi honek, Osakidetza-ko Administrazio Kontseiluaren 1998ko otsailaren 13ko baimena jaso ondoren, eta legeak ematen dion ahalmena erabiliz, hauxe

Se autoriza al Gobierno a actualizar la garantía financiera establecida en el artículo 40.4 para el reconocimiento de las Universidades privadas.

**Quinta.**– Entrada en vigor.

1.– La presente ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– El primer Plan Universitario se aprobará en el plazo de un año a contar desde la entrada en vigor de la presente ley. En tanto no se apruebe el Plan Universitario, y a los efectos de la determinación de la subvención pública, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación elaborará y aprobará un sistema provisional basado en los principios y criterios establecidos en la presente ley, sin perjuicio de que pueda proceder inmediatamente a la negociación y firma de contratos-programa.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dada en Vitoria-Gasteiz, a 6 de julio de 1998.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### Nº-3287

RESOLUCIÓN 1351/1998, de 5 de junio, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se crea la mesa de contratación adscrita a Salud Mental Extrahospitalaria de Gipuzkoa.

Por el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, se dispone en su artículo 20.4 que por la Dirección General del Ente, previa autorización por el Consejo de Administración del mismo, se crearán las Mesas de Contratación que se crean necesarias, en función del dimensionamiento de las distintas organizaciones del Ente Público y para el ejercicio de las funciones de asistencia al órgano de contratación en la adjudicación de los contratos, conforme a las previsiones contenidas en el artículo 82 de la Ley 13/1995, de 18 de mayo, de Contratos de las Administraciones Públicas.

Por todo lo expuesto, esta Dirección General, previa autorización del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud de fecha 13 de febrero de 1998, y en virtud de las facultades que legalmente le han sido atribuidas,